

hh  
hik hasi

**COVID-19: Alvaro Beñarani elkarrizketa**  
**COVID-19 eta lanbide eskolen ekarpena**  
**Magnet-Erakarri Barrutia ikastetxean**  
**Publikotasuna hizpide**  
**Zergatik erabili software librea eskoletan?**  
**COVID-19 eta telelana: nola eta zerekin**  
**Amaia Nausia**



# KONFINAMENDUA

Irudi ederrez beteriko  
leihatiladun liburua



# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## KONFINAMENDUA

COVID-19 koronabirusaren ondorioengatik sortu den pandemiak konfinamendua ekarri du neurri gisa. Ondorioz, Euskal Herriko ikastetxe guztiak itxi dira eta eskola-jarduerari etxetik jarraipena egiteko makinarria martxan jarri dute irakasleek, ikasleek eta gurasoek, besteak beste. Ezohiko egoeraren argazkiak atera ditu *hik hasik*, eskolako geletatik atera eta etxeko hormetan barna sartuz.

ELKARRIZKETA / 16

## ALVARO BEÑARAN

Koronabirusaren krisiak haurrengan izan dezakeen eraginaz mintzo da Alvaro Beñaran. Psikomotrizistak irakasleentzako eta gurasoentzako hainbat gako ematen ditu konfinamendu honetan umeez euren garapenarekin eta ikasketa-prozesuarekin jarraitu ahal izateko eta oraingo bizitza hau, bai haurrentzat baina baita helduentzat ere, eramangarriago eta bizigarriago egiteko.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Mikel Agirrezabala, Ainhoa Azpiroz eta Ainara Gorostitxu.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.  
**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.  
**Diseinua:** Grafik.

**Maketazioa:** Xangorin.  
**Inprimategia:** ANTZA S.A.L  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2020-03-18).  
Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiek.

## 5 EDITORIALA

Etxea eskola bihurtzeak dakartzan aukerak eta arriskuak

## 6 GAI NAGUSIA

Konfinamenduan etxeak eskola bihurtuta

## 16 ELKARRIZKETA ALVARO BEÑARAN

“Irakasleen rola bikoitza da itxialdian: familiei lagundu behar diete ikaste-prozesuan; eta haurrei presentzia eskaini”

## 24 ESPERIENTZIAK 1

COVID-19aren aurrean, aurpegiak babesteko pantailak

## 26 ESPERIENTZIAK 2

Magnet-Erakarri: ikastetxera ilusioa ekarri duen proiektua

## 30 EKARPENAK 1

Fito Rodriguez eta Txapas: “Herriarena dena publikoa da”

## 32 EKARPENAK 2

Iruñeko haur eskolen gutunak

## 36 GALDEIDAZU

## HEZKUNTZAN ERE LIBREZALE

Zergatik da garrantzitsua eskoletan software librea erabiltzea, eta ez Google eta Microft-en produktuak?

## 39 ARGITALPENAK


## 40 PROPOSAMENA

Telelana nola eta zerekin

## 42 ATZEKO ATETIK

Amaia Nausia

# Konfinamenduan



# Etxea eskola bihurtzeak dakartzan aukerak eta arriskuak

## editoriala

KONFINAMENDUAREN ONDORIOZ ESKOLAKO JARDUNARI ETXEAN EMAN ZAIO JARRAIPENA. HORREK, ORDEA, ETXEKO HARREMANEI ETA ZEREGINEI DENBORA KENTZEKO ARRISKUA DAKAR.



**K**oronabirusa, pandemia eta konfinamendua. Txina, Italia eta Euskal Herria. Urtarrila, otsaila eta martxoak. Hiru urratsetan —laburbilduz— dena irauli duen egoera berri batean gaude. Egunerokotasuna goitik behera aldatu da denentzat: dendarientzat eta erosleentzat; administrazioarentzat eta herritarrentzat; irakasleentzat eta ikasleentzat; langileentzat eta enpresariarentzat; medikuentzat eta gaixoentzat.

Denek bezala, irakaskuntzan eta hezkuntza arautuan zein ez-arautuan dabilten irakasle, hezitzaile eta familiek ezohiko egoera honi aurre egin behar izan diote. Programatu eta planifikatu gabeko gaia edo unitate didaktikoa jarri du koronabirusak mahai gainean, curriculumean zehaztu gabekoa, aurretik abisatu gabeko azterketa, eta bakoitza bere abileziak, sormena eta indarra erabiltzen ari da azterketa hori gainditzeko.

Eta hortxe dago koska. Zer behar da *azterketa* hori gainditzeko eskoletan eta etxean? Zer behar da egoera honi aurre egiteko?

Irakasleei irakaskuntza-jarduerarekin jarraitzeko lana jarri zaie, azterketa gainditzeko hori da egin behar dutena, ez ikasleak ez beraiek oporretan ez daudela gogoraziz. Aurreneko mezu horrek, baina, lasterketa eta gain-karga ekarri ditu: irakasleak lanak eta proposamenak egiten eta egiten, horiek ikasleei helarazteko gailuak erabiltzen ikasten, familiekin komuni-

kazioa bermatzeko ahalegina egiten, telarena eta etxeko martxa kontziliatzeko borrokan murgilduta... Indarrez eta grinaz heldu diote erronkari, beti ikasteko duten gogoia eta prestasuna erakutsiz.

Beste aldean familiak daude; batzuk etxerako lanak eskatuz, beste batzuk bidalitakoekin gaindituta. Ez dagokien irakasle funtzioa betetzen aita eta ama asko, eguneko orduak dauden lanetarako antolatzen eta banatzen.

Zurrumbilo horretan normaltasunez jokatzeko nahia ager daiteke, dena lehen bezalako egiteko desioa, egoera ez denean normala, inondik inora. “Ez da gelditu, segi, segi” esango bali-gute bezala, ezohiko egoeran gaudela ahanzteko arriskua dago; eguneko orduak lan eta proposamenez bete eta alderdi emozionalari, osasunari eta etxeko harremanei lehen bezain denbora gutxi eskaintzekoa.

Azterketa hau gainditzeko ez da curriculum-a aurreikusi bezala bete behar; ez, beste premia batzuk sortu dira. Ikasturte honetako edukiak ezohiko egoerara egokitu behar dira eta pil-pilean eta agerian dauden harremanei, bizipenei, emozioei eta sormenari lekua egiteak eman behar du puntuazio gehien.

Azterketa honek bigarren zati bat ere izango du laster: eskolarako itzulera. Une horretan ere, aipatutako puntuazio horri eman beharko zaio lehenetsuna, egoerak hala eskatuko duelako.

**“Euskarak ikasleen aho-borondateetan iraungo badu, ohiturak eta hizkuntza propioaren gozoa transmititu behar. Ez dago besterik”**

Anjel Lertxundi



3 urteko umeak ko-ro-na-bi-ru-sa hitza esaten, inolako zailtasunik gabe, ama esaten duten modu berean; 6-7 urtekoak ase ezineko jakin-minez edo beldurrez galderak eta galderak egiten; 8-9 urtekoak koronabirusari buruz entzuten dituzten txistek errepikatzen; eta nerabeak aspertuta gaiak “paso” egiten edo konfinamenduari nola aurre egin asmatzen. Argazki orokor bateko detaileak izan daitezke, eta jarrera eta erreakzio gehiago ere izango dira argazki horretan. Egoerak egoera eta erreakzioak erreakzio, kontua da COVID-19ak denei eragin diela; gutxiago edo gehiago, baina denei. Zooma hartu eta ikastetxeetara eta etxeetara sartu da *hik hasi* egoeraren argazki zehatzagoak ateratzera.

# GAIA:

# KONFINAMENDUAN

# ETXEAK ESKOLA

# BIHURTUTA

---

**S**ARS-CoV-2 koronabirusak sortutako gaixotasuna da COVID-19, kutsakorra eta munduan zehar azkar hedatzen ari dena. Horregatik izendatu du OME Osasunerako Munduko Erakundeak pandemia, eta Euskal Herrira ere iritsi da. Ongi iritsi ere. Martxoaren 9an Arabako ikastetxe guztiak itxi ziren, martxoaren 13an Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak eta martxoaren 16an Nafarroa Garaikoak, Nafarroa Beherekoak, Lapurdikoak eta Zuberoakoak. Hasiera batean 15 egunetarako, baina gero mugarik gabe luzatu da beste abisu bat eman artean. Ikastetxeak, eskolaz kanpoko jarduera oro, kultur emanaldiak eta irteerak. Eta horren ondotik, konfinamendua; etxetik atera gabe egoteko agindua Hegoaldean eta gurasoekin ordubetez kalera irteteko aukera Iparraldean. Helburua kutsakorren eta kontrolik gabe hedatzen ari den gaixotasuna kutsatzeko arriskua gutxitzea da.

Euskal Herriko ikastetxe guztiak itxita egoteak ezohiko itxura eman die herriei, auzoei eta etxeei: umeak eta gazteak etxean, guraso batzuk etxetik lana egiten, beste batzuk ohiko lantegira joanez, beste batzuk ohiko lantegira joan ezinik eta etxetik ere telelana egin ezinik, arrisku taldetzat hartzen diren aitona-amona asko bilobak zaintzen... Eta zurrumbilo horren erdian mezu bat: “ikastetxeak ez daude

oporretan, eskola-jardueraren aldi baterako etenaldia ez da eskola-jardueraren etenaldizat hartu behar; aitzitik, ahalegina egin behar da ikasleek egunero etxean ikasteko ohiturari eutsi diezaioten, irakasleei dagokie material didaktikoa prestatzea eta ikasleen eskura jartzea, ahal den neurrian, modu ez-presentzian lan egiten jarraitu ahal izan dezaten”.

Ezin uka ezohiko egoera horrek lan gehiago, aldatu beharra, ikasi beharra eta egokitu beharra ekarri dituela irakasle eta hezitzaileentzat, eta estres pixka bat sortu duten egunak izan dira hasierakoak. Gasteizko Zabalgana institutuko Miren Fernandez de Betoño ikasketaburuak lan eta lan ari direla dio: “Ez dakit lehen baino gehiago egiten ari garen, baina irakasleok lanpetuta gabiltza: nola bideratu pentsatzen, orain arte beste modu batera irakasten ziren unitate didaktikoak edo ariketak orain telematikoki egin behar dira eta hori nola egin pentsatzen, antolatzen... Gogoz gaude, baina lanpetuta. Erronka berri bat da, txipa aldatu behar dugu eta oso zaila da. Ezin ditugu eskolak modu arruntean eman, eta hasteko, nik uste dut hori asumitu behar dugula lasaitasunez aritzeko. Ahal dugun heinean jarraipena egingo dugu, hori bai, baina argi edukita salbuespen egoera batean gaudela”.

# GAIA: KONFINAMENDUAN

Etxeak eskola bihurtuta

Iruñeko San Fermin ikastolan ere antzeman dute urduritasunak gora egin duela. Hirune Pellejero ikastolako zuzendari orokorrak uste du hiperaktibitate egoera batean egon direla lehendabiziko egunetan: “Beste egoera batzuetan erresistentzia gehiago egon badaitezke ere, oraingoan alarma egoera hau hain barneratuta dugu, benetan auzolan digitalean ari garela. Ez dakit eguneroko lan kantitatea handitu izana den ala egoera bera: etxean gaude, ez dugu etxetik kanpo inongo aktibitatearik egiten, eta ondorioz badago halako joera bat egun osoan zehar gauza bera egiten jarraitzeko: alderdi korrean sartu eta zalantzak kudeatzen ibiltzearena, edo ikasleak ere beraien antolaketa desberdina egitearena goizez eta arratsalde, edo arratsalde gehiago luzatzearena...”. Horregatik, zuzendaritzak mezu bat bidali zien irakasleei laneko orduak mugatzeko. “Sekulako lan pila egin dugu egun hauetan egoerari aurre egiteko eta guk zerbaiteko komentatu badugu izan da zein pozik gauden irakasleen inplikazioarekin. Horregatik, zubiak eta asteburuak atsedean hartzeko probesteko esan diegu. Esate baterako, goizeko 8etan hasi bagara lanean, arratsaldeko 4etatik aitzinera ezin da ikastolako whatsappetan lanari buruz aritu, bestenez badugulako arrisku bat egunero horrela arituta hemendik hamabortz egunera leher eginak egotearena eta indarririk gabe egotearena”, dio Pellejero zuzendariak.

Irakasleak, ikasleak eta familiak, denak daude egoera berri honetan. “Egoera hau denontzat da berria, ikasleentzat ere bai eta ikasleak ere honetara egokitzea zaila da”, dio Argiñe Korta Tuterako Argia ikastolako zuzendariak. “Egunero konektatzen gara, bilerak ditugu lankideon artean, ikasleak berehala konektatzea nahi izan dugu, lanean jartzea, etxerako lanak berehala bidaltzea, zuzentzea, gura-

soak deika ditugu... eta horrek estresa sortu du”, kontatzen du Argia ikastolako zuzendariak. “Orduan, lasaitu egin behar dugu, pazientzia izan eta espektatibak jaitsi. Gauza bat da normaltasunez lan egiten saiatzea, baina ez gaude egoera normalean. Galerak edukiko ditugu baina ez da ezer pasatzen; ikasturte batean ikasi ez dena hurrengoan ikusiko dugu, eta hori da ikasi behar duguna”. Lanean baina uneko egoerara egokituta eta espektatibak jaitzita.

Lehentasunak aldatu beharko dira, ikasketa-prozesuak adina garrantzi izango baitu guztion egoera emozionalak, fisikoak eta ongizateak. San Fermin ikastolako zuzendari orokorrak dio alderdi horri hasieratik eman ziotela garrantzia: “Lehendabiziko egunetik igorri genizkien familiei eta ikasleei gomendioak eguneroko plangintza bat egin zezaten, eta plangintza horren inguruan, ikasteaz edo lan egiteaz landara beste gauza batzuetarako ere denbora uztea eta horiek ere errutinan sartzea”.

## Tituluak jokoan daudenean

Ikasturte honetan selektibitatea, baxoa, brebeta edota lanbide heziketako azken urteak egiten ari diren ikasleen eta familien egoera da kezagarriena une honetan. Selektibitatea uztailaren 6, 7 eta 8an egiteko nahia daukate EAEn eta Nafarroan ekainaren amaieran. Baxoaren data oraindik jarri gabe daude. Selektibitatearen kasuan, Madrilgo Hezkuntza ministerioak eta erkidegoek adostu dutenez, “unibertsitateko sarrera justizia eta berdintasun parametroen arabera egiten dela segurtatzeko, proben eredia eta edukia aldatzea erabaki da, ikasleek ikasgaiaren bateko eduki-blokeren bat ikasgelan landu ez dutelako kalterik jasan ez dezaten”. Bestalde, baxoa egin behar duten ikasleek proba batzuk jada eginak dituzte, beste batzuk egitekoak ikastxean bertan, eta azken proba, idatzizkoa eta estatu guztian aldi berean egiten dena, horrekin ez dakite zer pasako den. Lizeoko ikasleen kasua da hori, baina kolegioan ere badute beste proba bat: Brebeta. 3. mailako ikasleek maiatzean ikastolan bertan egiten dute ahozko azterketa bat, eta gero ekainean izan ohi dute Frantzia osoan bigarren proba. Momentuz ez dutela horri buruzko informaziorik dio Kanboko Xalbador kolegioko Eñaut Elozei zuzendariak.

Ikasleak ahalik eta gutxien kaltetzea da helburua eta zentzu horretan San Fermin ikastolan familiak eta ikasleak lasaitzen ari direla dio Lina Andueza Bigarren Hezkuntzako zuzendariak: “Lana egiteko garaian, ez dute arazorik ez zaielako arrotza egiten digitalki lan egitea. Gehiago landu beharrekoa da alderdi emozionala, antsietatea, asko baitute jokoan”. Orientazioa oso inportantea da ikasturte hauetan





## GAIA: KONFINAMENDUA

eta momentu honetan familiekin eta tutoreekin orientazio-saio garrantzitsuak zeuzkaten programatuta. “Beraz, orain, bideoak eta audioak sortu beharko ditugu eta familiekin hangouts moduko plataformekin egin beharko ditugu bilerak, behar baitute emozionalki eta horri erantzun egin behar baitzaio”.

Antzeko egoera bizi dute Lanbide Heziketako ikasleek. Erdi zein goi mailako 2. mailako ikasleak enpresa eta erakundeetan praktikak egiten ari ziren une honetan, eta praktika horiek guztiak etenda gelditu dira. Iurretako Lanbide Eskolako Tomas Maguregi zuzendariak dioenez, salbuespen batzuk badira: “Hainbat enpresatan ikasleei etxetik egin ahal izateko lanak bidali dizkiete, baina espezialitate guztietan ez da posible hori”. Praktikak bukatu ondoren eskuratzen dute titulua ikasleek eta horretarako 380 orduko praktika-aldia egin behar dute. “Bizi dugun egoeraren aurrean, badirudi Hezkuntza Ministerioak ontzat emango duela ordu kopuru hori jaitea eta 220 ordurekin nahikoa izatea”, gehitzen du Maguregik.

## Lehenetasuna familiekiko harremana da

Eguneroko aurrez aurreko jardunetik distantziako jarduera pasa behar izan dute irakasleek eta ikasleek; taldean aritzetik bakarka aritzera; elkarrekin erlazionatzeko pantaila edo telefonoa behar izatera; ordutegi finkatua izatetik ordutegi berri bat osatzera; lan egiteko moduak aldatzera, azken batean. Denek egin dute aldaketa, batzuek errazago eta beste batzuek nekezago.

Posta elektronikoa, telefonoa, drive, classroom, moodle, jitsi... kontzeptu berriak dira batzuentzat, beste batzuentzat ez. Olaberriko eskola txikian, esate baterako, aurretik horrelako plataformak erabiltzen ohitu gabe zeudela dio Alaitz Makatzaga ikasketaburuak. “Inprobisatzen eta probatzen ari gara”. IKTko mintegitik gomendioak jaso dituzte eta egokiena iruditzen zaien plataformarekin ari dira materialak bidaltzen eta irakasleen arteko bilerak online egiten. “Eskola Txikien sarea ere baliatzen ari gara: eskola txiki guztietako irakasleok sortzen ari garen materiala driven jarriko dugu, ikasleei proposatzen dizkiegun erronkak partekatzeko. Antzeko filosofia daukagunez, elkarren materiala erabili dezakegu driven jarrita”.

Haurren adinaren arabera ikasleen jarraipena modu desberdinean ari dira egiten, oro har. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen urteetan materiala prestatu eta korreo elektronikoz bidaltzen ari dira eskola gehienetan. Tuterako Argia ikastolan Haur Hezkuntzako umei ez diete lanerako



materialik igorri. Horren ordez, hainbat aholku eman dizkiete errutina mantentzeko eta euskarazko jolasak, eskulanak, audioak eta pelikulak ezagutarazteko. “Gure egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, inportantea da euskara guztiz ez baztertzea egoera honek irauten duen bitartean”, dio Korta zuzendariak. Zaharragoak diren ikasleen kasuan, edukiak eta azalpenak hizkuntza desberdinetan eskaintzen dituzten plataformak badituzte familientzat.

Maria Bonilla Leioako Claret Askartza kristau eskolako Haur Hezkuntzako hezitzailea da eta etapa horretan lehenetasuna familiekin harremana mantentzeko eta umeek oinarriko errutina ahal den neurrian mantentzeko eman diote. “Momentu hauetan elkarrekin gaudela adierazi nahi izan diegu familiei, gure babesa eta laguntza eskainiz. Horretarako, umeekin etxean burutzeko hainbat ekintza luzatu dizkiegu, betiere proposamen modura, Haur Hezkuntza ez baita derrigorrezko ikaskuntza”. Umeek etxean ordu asko pasa behar dituztenez, eskaintako proposamenekin, denbora arinduz, esperimintatzen, ezagutzen eta ikasten jarraitzeko materiala eta ekintzak proposatu eta eskura jarri ahal badizkie, ongi deritzote. “Lehenengo egunetan eskolan egunero egiten ditugun ekintzen zerrrenda bidali genien errutina moduan, ideiak eta proposamenak bideratuz. Orain, bi egunetan behin material zehatzagoa bidaltzen ari gara; ipuin bat gehi eskulanak, fitxaren bat, matematika era manipulatioan lantzeko proposamenak, hizki saldak, hizkiekin jolasak, bideo edo abestiren baten esteka eta abar”. Orain arte horrela moldatu badira ere, argi daukate egoera aldakorra dela eta malgutasun osoz jokatu behar dutela egoerara egokitzeko. Familiekin komunika-

# GAIA: KONFINAMENDUAN

Etxeak eskola bihurtuta

tzeko eta materiala bidaltzeko orain arte ikastetxean erabili izan duten plataforma erabiltzen ari dira eta une jakinetan telefonoa ere erabili dute.

Erandioko Alzaga eskola publikoko Haur Hezkuntzako hezitzaileek ere egoera ahalik eta eramangarrien egiteko proposamenak luzatu dizkiete familiei, baina batez ere jolastea gomendatu diete, “jolasa baita ikasteko tresnarik onena”. Familiei igorritako mezuan argi diote: “Ez da komeni umea gidatutako jarduerekin gogaitzea, inprobisaziorako eta aspertzeko tarteak ere interesgarriak dira. Zaindu bereziki pantailen gehiegizko erabilera eta batez ere, jolastu”. Sasoi honetan, “galduko ote dutenagatik” kezkatu beharrean, irabaziko duten horretan fokua jartzeko azpimarratzen dute: elkar topatzeko, etxekoan arteko espazioak eta kontakizunak berreskuratzeko, pazientzia garatzeko, eguneroko erritmo zoroa gelditzeko, sormena eta irudimena lantzeko, zaintza pertsonal eta kolektiboa egiteko eta abar.

Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailan gurasoen posta elektronikoz baliatzen ari dira zentro gehienetan ikasleei lanak bidaltzeko. Batzuek egunero bidaltzen dute lana eta beste batzuek astean behin. Zenbait material inprimatu egin behar zirenez, ikastetxeak erabat itxi aurretik familiei ikastetxera joateko eta materiala hartzeko aukera eman zitzaizen hainbat lekutan. “Gure kasuan, familia batzuk ez ziren etorri eta herria txikia denez, irakasleok joan ginen materiala buzoian uztera”, dio Olaberriko eskola txikiko ikasketaburuak.



Lehen Hezkuntzako 4. mailatik aurrera, DBHn eta Batxilergoan egoera bestelakoa da. Lehen Hezkuntzako azken bi edo hiru kurtsoetan batzuk chromebook-a erabiltzen edo online lana egiten hasiak daude eta beraz, horien kasuan, modu horretara egiten ari zaie jarraipena. Gauza bera DBHn eta Batxilergoan. Beasaingo institutu publikoko Matematikako irakasle Aloña Azpirozek azaltzen duenez, “zuzendaritzatik jarraibide nagusiak jaso ditugu, gero mintegi bakoitzak bere antolaketa egin du eta hortik aurrera irakasle bakoitza bere eskolak prestatzen ari da: azalpen teorikoak idatzita edo bideoz bidaliz, egiteko ariketak bidaliz, zuzendutakoak ondoren...”.

San Fermin ikastolako Bigarren Hezkuntzako zuzendari Anduezaak dio DBH digitalizatuta daukatela Eki plataformaren bitartez, ikasle bakoitzak bere chromebook-a daukala eta badutela halako kultura bat euren material propioa sortzeko, partekatzeko... “Normaltasunean metodologia honen kontrakoak eta aldekoak daude, baina zalantzarik gabe, horrelako egoera batean oso-oso lagungarria da ikasle bakoitzak etxean ordenagailua izatea eta ohituta egotea lanak partekatzen beraien artean, gurekin...”. Dinamika ez da guztiz arrotza, “egin behar izan duguna izan da antolatu”. Antolaketa horretan hiru ardatz markatu dituzte Zizur Txikiko ikastolan: arloko irakasleek lanak prestatu, bideratu eta dosifikatzea; ikasleei etxean denboraren kudeaketan laguntzea; eta ikasleen jarraipena egiteko tresnak diseinatzea.

Gasteizko Zabalzana Bigarren Hezkuntzako institutuan DBH 3. mailatik aurrera erabiltzen dituzte chrombook-a, liburu digitalak eta moodle eta classroom plataformak. “Salbuespen egoera dela kontuan hartuta, ez da aldaketa handirik izan, ohituta zeudelako ikasle horiek modu digitalean lan egiten. Horiekin arazorik ez dugula izan esan dezakegu”, dio Fernandez de Betoño ikasketaburuak. “DBH 1. eta 2. mailan, ordea, ez dute halako plataformarik erabiltzen eta ikasle jakin batzuekin kostatzen ari zaigu ez daukatelako ordenagailurik edo Interneterako sarbiderik etxean. Orduan, astelehenero lana prestatzen dugu, irakasle guztiek partekatutako drive dokumentu batean jartzen dugu eta hori bidaltzen zaie familiei e-postaz. Momentuz, gehienak ari dira jasotzen eta lanean ari dira”.

Kanboko Xalbador kolegioan Easycol plataforma erabiltzen zuten lehendik. “Oraingo egoerarekin, beste urrats bat egin dugu eta Easycol-en bi zentzuetara komunikatzeko aukera jarri dugu”, azaltzen du Elozegi kolegioko zuzendariak. “Barne mezutegi bat izanen da, beraz, familia bakoitzak idazten ahal dio irakasle bakoitzari edo zuzendariari,

## GAIA: KONFINAMENDUA



eta irakasle bakoitzak ikasleei, familiei edo gelari”. Tresna horren bitartez ari dira bideratzen komunikazio guztia eta etxerako lanak igortzen ere bai. “Ostiral arratsaldeko 5etan irakasle bakoitzak bere gela guztiari komunikatuko dio ondoko asterako zer etxerako lan ematen dieten. Astebeteko lana izango da”, azaltzen du Elosegik. “Hori bai, irakasle arduradunak aurretik lan horien informazio guztia jasotzen du eta ziurtatzen du guk finkatu ditugun irizpide batzuk beteak direla”. Irizpide horiek maila bakoitzean zenbat orduko lana eman behar zaien finkatzeko jarri dituzte, “hori baino gehiago gehiegi da eta hori baino gutxiago ez da komeni”. Horrez gain, zurkaitz bakoitzak (maila desberdinetako 12 ikasleren segimendua egiten duen irakaslea) asteen behin egingo du kontaktua familiarekin ikaslea ongi doala ziurtatzeko.

Lanbide Heziketako ikastetxeetan praktikak bertan behera geratu direnez, plan aldaketak egin dituztela dio Iurretako Lanbide Eskolako zuzendari Maguregik: “Ezin dugu praktikekin segi, beraz, alderdi teorikoari heldu diogu. Une honetan modu telematikoan ikasleei azalpen teorikoak bidaltzen ari gara. Irakasleak buru-belarri zentratu dira horretan eta gure arteko koordinazioa ere modu horretan ari gara bideratzen; bideokonferentziekin, hangouts-arekin eta horrelako erremintekin”. Lanbide eskolen asmoa da konfinamenduak iraun bitartean alderdi teorikoa egitea eta normaltasunera bueltatzen direnean praktikak egitea. “Maiatza bukaeran edo ekaina hasieran bukatu ohi dituzte praktikak, baina aurtun luzatu egin beharko da ekaina bukaera edo uztaila hasiera arte modulua osatzeko behar dituzte orduak egin ahal izateko”.

## Irakasleak ikasten eta prestatzen

Makinaria digitala martxan jartzeko eta egoerari aurre egiteko irakasleek ezinbestean prestatu behar izan dute, helburua argi edukita, Xalabor kolegioko zuzendariak azpimarratzen duen moduan: “Ondoko asterako lanak prestatzea; konsigna aski argiak izatea parez pare egon gabe ulertuak izateko; manera egoki eta argi batean idaztea ikasleentzako bidali behar dituzten lanak eta materialak; eta ikasleen jarraipena egitea”.

San Fermin ikastolako Bigarren Hezkuntzako ikasketaburuak azaltzen du “jarraipen orokorra egiteko site bereziak sortu behar izan ditugu, ikasleek ikasgai guztiak gune bakar batean zentralizatuta izateko, informazio guztia bateratuta edukitzeko” dio. Gasteizko Zabalganako ikasketaburuak ere ikusten du bateratzeko behar hori: “Bestela ikasleak zoratu egingo dira. Dokumentu bat bidali zaie zehaztuz irakasle bakoitzak zein plataforma erabiliko duen. Irakasleriaren erdiak moodle erabiltzen du eta beste erdiak classroom. Baina hurrengo ikasturteari begira, plataforma desberdinekin ibili beharrean bateratu beharra dagoela konturatu gara. Hori da hurrengo ikasturtera begira egin beharko dugun hausnarketa”.

Beasaingo institutuko Azpiroz irakasleak ere ikasle bakoitzaren jarraipena egiten ari direla dio, bakoitzaren galderak erantzunez eta zalantzak argituz, galdera horiek ikasle denei bidaliz eta partekatuz eta abar. “Behar bereziak dituzten ikasleen kasuan haien irakasle laguntzailearekin harremanetan gaude, hark egiten dio jarraipena. Eta gauza bera

# GAIA: KONFINAMENDUAN

Etxeak eskola bihurtuta

etxez etxeko zerbitzua jasotzen duten ikasleekin. Denok koordinatuta egon behar dugu jarraipena ongi egiteko”.

Irakasle batzuek lehenik ere erabiltzen zituzten horrelako plataformak. Azpirozek dio hainbat formazio saio jasotzeko aukera izaten dutela ikasturtean zehar horrelako plataformak ezagutzeko eta nola erabiltzen diren ikasteko. Zabalganako Fernandez de Betoñok gehitzen du irakasleen artean denetarik dagoela: “Institutua irekita dagoenean eta normaltasunez aritzen garenean ere ikusten da hori; batzuk trebeagoak dira eta beste batzuk ez. Baina orain denok asumitzen ari gara behar dugula. Badaude asko dakiten irakasle batzuk eta pila bat ari dira laguntzen gainerakoei”. Erronka berri batean aurrean, beti ikasten.

San Fermin ikastolan erronkatzat hartu dute irakasleen artean komunikatzeko moduak diseinatzea. Anduezak dioenez, “oso ohituta gaude taldeka lan egitera, tutore taldeak gara, ez gara gela bakoitzeko tutoreak, baizik eta maila bakoitzeko sei edo zazpi tutore gara. Baina irakasle guztiok etxetik ari gara lanean eta ondorioz etxetik bilerak egiteko tresnak asmatu behar izan ditugu. Ez da erraza aldiero zortzi pertsona etxetik komunikatzea, baina era berean, ikasleei jarraipena egiteko oso garrantzitsua da irakaslearen arteko koordinazioa. Horretarako, gmaileko meet edo hangouts erabiltzen garai gara. Hiru egunetan denok aditu digitalak bihurtu gara”. Olaberriko eskola txikiko irakasleak ere whatsapp eta e-posta erabili dituzte lehen egunetan, baina google meet aplikazioa erabiltzera pasa dira beraien arteko bilerak egiteko.

## Etxe barruko ahalak eta ezinak

Etxetik lana egiteko ordenagailua eta Internet behar dira, eta hor sortu da arazoa eta erronka. Ikasle guztiak etxetik lana egiteko eta eskolak jarraitzeko baliabideak bermatzen saiatu dira hainbat ikastetxetan, eta beste batzuetan baliabide horien faltan egokitzen eta komunikazioa eta jarraipena beste modu batera bermatzen. Olaberriko eskola txikian Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasle denei etxetik lan egiteko aukera jarri diete, ordenagailurik ez zutenei eskolakoak emanez mailegu kontratu bat sinatuarazita. Tuterako ikastolako familiei ikastolak berak eta Nafarroako Ikastolen Elkartek eskaini dizkiete baliabideak. Lehen-dabiziko egunean bertan zerrendatu zuten zein etxetan ez zegoen ordenagailurik edo zeinetan behar zuten beste bat (daukatena gurasoek behar dutelako), eta ikastolako ordenagailuak banatu dizkiete. Horrez gain, Interneterako sarre- ririk ez zuten familiei pintxoak banatu dizkiete Ikastolen Elkartek, etxe guztietan aukera izango dutela ziurtatzeko.

“Denek dute eskubidea”, dio Korta zuzendariak. “Horretarako dauzkagu materialak, ikasleek erabiltzeko, koaderno bat bezalaxe. Beraz, ikasleen esku utzi behar dira”.

Gasteizko Zabalzana institutuan ikasle batzuei telefonoz deika aritu dira, “ziurtatzeko ordenagailua eta Interneten duten, e-postaz bidaliko diegun edo posta arruntez”, dio Fernandez de Betoño ikasketaburuak. “Berez oso gutxi dira e-posta ez dutenak eta horien kasuan gurasoak etorri izan dira ikastetxera lanen bila eta telefonoz ere ari gara jarraipena egiten”.

Denetariko egoerak daude eta bideratzeko eta irtenbideak topatzeko aukerak ere anitzak dira. EHIGEko koordinatzaile Lurdes Imaz horren jakitun da: “Ezin dugu pentsatu ikasleek etxean eskolan egiten zutena egingo dutenik. Familia askotarikoak daude, ordutegia desberdina izango da, bestelako beharrak izango dituzte umeez, hala nola, lasaitzea, jolastea eta abar”. Gainera, eskolako lanak egiteko baliabideak, digitalak zein bestelakoak, denek ez dituzte eskura eta maila berean izango. Kanboko kolegioko zuzendariak badu egonezina horrekin: “Nik badut kezka horrela lan egiteak ez ote dituen ikaslearen arteko desberdintasunak areagotuko eta ez ote diren desberdintasun sozialak edo familiararen arabera ondorioak emanen”. Izan ere, baliabide teknologikoez gain, beste hainbat faktore daude. “Agian ikasle batzuek aukera dute lan egiteko ongi, gauzak ulertuz, zentzua emanez, erritmo batekin, diziplina batekin, etxean horretara bultzatzen badute. Eta beste batzuen kasuan etxean gatazkaren bat baldin dago, etxeok ez baldin badute denborarik edo ahalik segimendua egiteko, familia horietan gainbehera egon daitekeela imajinatzen dut”, laburbiltzen du Elosegik.

Gasteizko Zabalzana institutuan ere badute kezka hori, ikasketaburuak azaltzen duenez: “Online dabilen ikasle batek gutxienez freskatuta dauka edukia, zalantza bat bidualtzen badu online erantzuna jaso dezake, eta besteek ez. Argi daukagu, tamalez, desberdintasuna egongo dela eta egoera kezkarria dela, baina lasaitasunez aritu beharko dugu, ezohiko egoeran baikaude”.

EHIGEko koordinatzailearen ustez, oro har, momentuz ongi ari da bideratzen eskolen eta familien arteko hartu- emana. “Baina egoera hau luzatzen den heinean, epe- tainerako plana beharko dugu egoera honi elkarrekin nola aurre egingo diogun adosteko, hau da, bide-orri adostu bat administrazioaren eta eskola-komunitateko kideen artean. Ikastetxeak eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak egokitu behar dira eta horrek adostua izan behar du”.

## Malabarismoak dena kontziliatzeko

Gauza bat da eskolako lanak egiteko materiala familien eskura jartzea, baina behar gehiago ere badira: “Bazterketa egoeran dauden familiek behar bereziak dituzte. Esate baterako, otordu egokiak bermatzea seme-alabei edota Internet zerbitzua, baina ez eskolako lanetarako soilik, baizik eta maite dituzten pertsonekin komunikatzeko”, kontatzen du EHIGEko koordinatzaileak. Horrez gain, seme-alabek behar desberdinak izango dituzte autonomia gutxiago edo gehiago duten neurrian; txikitxoek arreta gehiago behar dute eta nerabeen kasuan beharrak bestelakoak izango dira, ikasteko diziplina mantentzea, esaterako.

Horrek dena kontziliazioaren gaia dakar mahai gainera. “Egoera honek begien bistan utzi du gure gizartea ez dagoela prestatuta lana eta familia uztartzeko”, dio Imazek. “Esango nuke krisi honek agerian ipini duela zaintza gizararen erdigunean jartzeak duen garrantzia”. Kasu askotan aitona-amonak izan dira orain arte gabezia hori estali dutenak; eta umeek aitona-amonekin ezin izan dutenean egon, gurasoek lanak izan dituzte familia eta lana uztartzeko. Lanera joan behar izan duten gurasoen kasuan, ume txikien zaintza bermatu ezinik ibili dira, zaila baita beste pertsona helduren baten laguntzarik ez badute. Guraso bakarreko familiek ere zailtasun gehiago izan dituzte. Egoera horiek bultzata sortu dira zaintza kolektiboak, boluntarioz osatutako taldeak beharra duten familiei laguntzeko. Imazek dio ederra dela horrelako ekimenak sortzea, “baina hala ere zaintza ezin da soilik boluntarioen esku utzi. Zerbitzu publikoen bidez bermatu behar da prestakuntza eta lan-baldintza egokiak dituzten profesionalekin”.

## Irakaspenik ba ote?

Iurretako Lanbide Eskolako zuzendariak azpimarratzen du egoera kezkarri honetatik alde positiboa ere ateratzen ari direla: “Guretzat esperientzia berria den honetan izugarriko bidea deskubritu dugu eskolak ere telematikoan emateko. Irakasleok prestatzen ari gara eta potentzialitate handiak deskubritzen ari gara. Zoritxarrez behartuta, baina ikasteko aukera eman digu”.

Tuterako ikastolako zuzendariari ere zer pentsatua eman dio egoerak: “Gure bizitzan dena lotuta daukagu, dena planifikatuta, dena antolatuta, eta bat-batean etortzen da horrelako zerbait eta konturatzen gara ez gaudela prestatuta horretarako. Horregatik, denok ikasi behar dugu, galera denontzat baita”.

San Ferminen aukera berri bat sortu zaiela dio Bigarren



Hezkuntzako zuzendariak: “Ikasturte honetan ikastolan hausnarketa sakon bat bideratzen ari ginen, hemendik 25 urtetara ikastolatik ateratzen den ikasle baten irteera profila zein izatea nahiko genukeen eta horren haritik nolakoa izan beharko lukeen hezkuntzak. Pandemia honek agian gure irudimena azeleratu dezake eta beste eszenatoki batean jarri”. Ildo beretik mintzo da Pellejero zuzendari orokorra: “Hausnarketa horren barruan, irakaslearen papera aunitz aldatu behar zela aipatu genuen, orain pertsonen hezitzaileak izan behar dugula, pertsona bere osotasunean hartuta. Horrelako egoera batean ohartzen gara hainbeste ikasgai erakustez landara, zeinen garrantzitsua den horrelako bizitza egoera bati aurre egiteko erreminta pertsonalak landuta izatea, horiek irakastea: antsietatearen kudeaketa, beldurraren kudeaketa... Aurreko egun batean ikasle batek hala komentatzen zidan: ‘ez gaituzte prestatu horrelako egoera baterako’. Eta zenbatetarako ez gaituzten prestatuko, pentsatu nuen neurekiko”. Horregatik uste dute San Fermin ikastolako zuzendariak aitzindu egin behar dela emozioak kudeatzen ikasten, eta horrek lagunduko duela etorkizunean etortzen den edozein egoerari era egokiago batean aurre egiten.

Dena pantailaren bitartez lan egiteak ere beste ikaspen bat utzi du. “Dudarik gabe, aunitz ohartzen ariko gara zenbaterainoko garrantzia duen aurrez aurreko harreman pertsonal horrek”, hausnartzen du Pellejerok. “Aunitzetan ez gara ohartzen, gauza gehienetan bezala, faltatzen zaigun arte”.

# “Harrera zentroan konplexua da metro eta erdiko distantzia mantentzea”

Itxialdi garai honetan ume guztiak ez daude haien jatorrizko etxeetan, batzuk harrera zentroetan daude, eskolara joan gabe, denak zentroan. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoa den Donostiako Zabalduz Uba zentroa adin txikikoentzako larrialdi zentroa da eta 0-18 urte bitarteko umeak eta gazteak bizi dira bertan. Konfinamenduko egun hauetako egoeraren lekukotza eman diote *hik hasiri* Beatriz Maillo zuzendari pedagogikoak eta Onintze Kamino gizarte hezitzaileak.

## Zenbat haur eta gazte dituzue une honetan Zabalduz Uba zentroan?

**Beatriz Maillo eta Onintze Kamino:** Normalean Gipuzkoako Foru Aldundiaren bi programatako haur eta gazteak edukitzen ditugu: batetik, Bakarrik Dauden Adingabe Atzerritarren larrialdiko harrera programakoak; eta bestetik, erreferente familiarrak dituzten adingabeen larrialdiko harrera programakoak. Koronabirusa dela-eta, bi etxebizitza berri ahalbidetu dizkigu Foru Aldundiak erreferente familiarrak dituzten 20 haur eta gazte autoktonoentzat. Beraz, horiek etxebizitza berri horietara joan dira eta une honetan gure Zabalduz Uba zentroan beste programako 36 haur eta gazte bizi dira; Gipuzkoara bakarrik iritsitako haur eta gazte migratzaileak dira denak eta guztiak daude eskolatuta.

Larrialdiko zentroa bada ere, hemen dauden bitartean denei eskola alternatiba bat bilatzen ahalegintzen gara (institutua, lanbide ziurtagiriak lortzeko ikastaroak, Lanbide Heziketako zikloak...). Norbanakoaren beharren eta adinaren arabera, proiektu hezitzaile askotarikoak abiatzen dira. Dena den, Euskal Herriko gainerako haur eta gazte guztien antzera, eta Gipuzkoako gainerako harrera etxeetako haur eta gazteen antzera, orain etxean daude denak.

## 36 haur daukazue zentroan 24 orduz, kanpora atera ezinik, konfinamenduan. Zer suposatzen dizue aldaketak?

**B. M.:** Eguna joan, eguna etorri, hainbeste pertsona zentroan edukitzeko, ezinbestekoa da sortzeko gaitasuna. Baikortasunez eta itxaropenez kudeatzen dugu egoera.

**O. K.:** Ezustean harrapatu gaitu pandemiak. Inpaktua

izan du generaman bizimoduan eta jendartearen egunerokotasuneko aldaketak handiak eta berehalakoak izan dira. Hortaz, gurean ere antzeman da antolatzekeo premia. Beharrak sortu ahala eta gertaerak jazo ahala, talde lanean aritzen gara. Inprobisazioa, sormena eta irudimena ezinbestekoak suertatzen zaizkigu.

## Nola ari zarete kudeatzen egoera? Nola antolatu zarete?

**B. M.:** Zentroko ohiko egunerokotasuna hainbat jarduerekin programatua dago: gaztelaniazko zein euskarazko alfabetatze eskolak, hainbat gairen inguruko tailerrak, kirola, gorputz adierazpena, eskulanak, emozioen lanketa, baratzea, zinema, etxeko senideei deiak (bisitak bertan behera gelditu baitira), ordenagailuaren eta Interneten erabilera... Eta ohiko jarduera horiez gain, hezitzaile taldea ekintza bereziak antolatzen ari da: ginkana bat, altxorraren bila, scape room moduko bat...

**O. K.:** Guztien ongizaterako, haur eta gazteekin elkarbizitza osasuntsua izan dadin, nahitaezkoa da guztion ahalegina. Aipatutako eguneroko ekintza horiek ahalik eta mimo gehienarekin saiatzeko gara aurrera eramaten, egokitzen zaizun gazte taldearekin momentu on bat pasatzea baita helburua, batez ere, egunak (eta asteak) eramangarriagoak izan daitezkeen. Larrialdi harrera zentroa izanik, maiz, antolatutako ekintzen aurrean aurreikusitako gabeko ezustekoak gerta daitezke. Gazte taldeak zein profesionalok errealitate berri hauetara egokitzeko dugun gaitasuna aipatzekoa da.

## Ikastetxeetatik lanak bidaliko dizkiete. Nola egiten duzue horren jarraipena? Baliabiderik ba al duzue denentzat

**(esate baterako, ordenagailuak, Internet...)? Hezitzaileen esku geratzen al da denei jarraipena egitea, laguntzea, lanak egiten dituzten edo ez begiratzea...?**

**B. M.:** Ditugun baliabideei ahalik eta erabilera egokiena eman ez antolatu behar izaten dugu. Ordenagailua nahitaezkoa duten gazteek portatilik erabiltzen dituzte, eta gainerakoek eskuz egiten dituzte irakasleek alde aurretik korreo elektronikoa edo google drive bidez bidalitako lanak. Guk inprimatzen ditugu eta ondoren eskaneatuta iritsiarazten dizkiegu etxeko lanak irakasleei. Beste kurtso batzuetatik erantzunak ere bidaltzen dituzte zeinbat irakaslek, gazteek eurek zuzen ditzaten lanak. Telefono bidez edo korreo elektronikoz jarri ohi gara kontaktuan irakasleriarekin.

**O. K.:** Hezkuntza prozesuan ere, gure gazteen bidelagun izatea da hezitzaileen rola. Guzti-guztiek dute ikasteko ilusioa, norberak bere beharrak eta ikasketa maila ditu (batzuk euren herrialdeetatik alfabetatu gabe iritsi dira), eta askotan ez da erraza behar bezala eta behar bezainbeste denengana iristea. Ikasteko gaitasunak eta motibazioak bultzatuta, ordea, gehiengoak hilabete batzuen buruan gatzelania eta euskarazko espresioak barneratzen dituzte. Gehiengoak autonomia handiz egiten ditu eskolako etxeko lanak, beste askok lan gehiago eskatzen dizkigute eta euren artean ere asko laguntzen diote elkarri, batez ere momentuko itzulpenak egiteko. Hezitzaileok jarraipen orokor bat egiten dugu talde handian eta gazte bakoitzak bere hezitzaile tutorea duenez, berau arduratzen da gertuagoko jarraipena egiteaz.

**Haur eta gazte hauek zuen beharra dute, zuek zaudete zuzenean beraiekin gurasoen orde. Arrisku taldea zaretela kontuan hartuta, zer neurri hartu ditzakezue?**

**O. K.:** Alarma egoera hau berria da denontzat, beraz, hezitzaileen artean zalantzak edo kezkek izatea ez da harrizkoa. Geroni gara lanerako baliabide nagusiak, eta bestela ere, gure lana modu arrakastatsu batean aurrera eramateko norbere burua zaintzea ezinbestekoa denean, errealitate berri honetan, are gehiago. Gure esku dauden neurri guztiak hartu ditugu lanean bertan, baina egunerokotasunean pertsona askorekin jarraitzen dugu kontaktua izaten. Uba etxe handi bat da, familia arrunt batean sortzen diren dinamika errepikatzen dira behin eta berriz, baina beste dimentsio batean, beraz, esate baterako, nahiko konplexua suertatzen da elkarren artean metro eta erdiko distantzia mantentzea.

**Baliabideez gain, zer behar dituzte haur eta gazte hauek alderdi fisikotik, emozionaletik, sozialetik, harremanetatik... begiratuta?**

**B. M.:** Oro har, akonpainamendua, jarraibideak ematea, errealitatearen azalpena egitea, eta irribarre, keinu eta

hitzen bidez maitasuna transmititzea, nahiz eta azken hori, haur txikitxoekin zailagoa den kontaktuagatik. Horrez gain, kontuan eduki behar dugu gure haur eta gazteak badutela bigarren kezka bat, euren tokiko familien egoerarena, hain zuzen. Munduko beste herrialdeetara ere iritsi da konfinamendua eta euren familien ongizateak asko kezkatzen ditu.

**O. K.:** Ikasleak baino lehenago, premia biziak dituzten haur eta gazteak dira. Modu batera edo bestera, ikasteko eta irakasteko prozesua ez da gelditu, eraldatu egin da, baina norbere barruko prozesuak aurrera jarraitzen du eta prozesu akademikoari ez ezik, beste alderdiei ere kasu egin behar diegu, are gehiago alarma egoeran gauden honetan. Egunerokotasuneko gauza txikienetatik abiatuta adimen emozionalari duen lekua eskaintzen saiatzen gara. Idazten jakitea edota ondo idaztea, zenbatzea, buruketak egiteko gai izatea, irakasgaiak gainditu eta nota ona ateratzea, lanbideren bat ikastea... garrantzitsuak dira denak, denbora eta esfortzua eskaini behar zaizkie, baina norbere eta inguruko sentimenduak identifikatzen jakin eta harremanak egoki kudeatzea, hori bai dela ezinbestean landu beharrekoa.

**Egoera honek zerbait ikasteko balioko du?**

**B. M.:** Zerbait ikasteko balio beharko liguke. Bai hezitzaile taldeak, eta baita gazteek ere, pazientzia dosi ikaragarriak erakusten dituzte. Honek guztiak oraindik eta gehiago elkartzeko balioko digu, gatazkak badauden arren, berauek aukera bezala biziz gero, ikasten jarraitzeko aprobetxa ditzakegu, elkar gehiago ezagutzeko. Berrikuntza eta sormen bolada honetan, gazteak eta gazteen proposamenak gertuagotik entzuteko balioko digu egoera berri honek.

**O. K.:** Harrera zentro batean haur eta gazteekin lan eginez gero, egunero ikasten da zerbait. Hezitzaileen betebeharra ez da soilik erakustea, irakastea edo hezte. Sarritan, nik beraiekin, beraiek nirekin baino gehiago ikasten dudaren sentazioaz itzultzen naiz etxera. Zeure errealitatearen ispilu dira, etengabe zure mugekin egiten duzu topo, eta egunean zehar bizitako gertaera txiki batek zer pentsatu handia eman diezazuke. Sentimendu hori, gauden alarma egoera honetan, mantendu edo areagotu egiten da, beraz, honek guztiak ekarri behar du bere alderdi baikorra. Bizitza bera gehiago baloratzea akaso. Ziur aurrerantzean kontzientzia handiagoz biziko garela.

Zabalduz Uba zentroan musu eta besarkadak egunerokogia ziren, orain faltan botatzen ditugu. Ez genuen pentsatzen egunen batean denboraldi baterako beti bezala bi musu emanek "kaixo" eta "gero" arte esateari utziko genio-nik... Horrenbestez, keinu txikiak baloratzeko balioko digu bolada honek.



“Irakasleen rola bikoitza da itxialdian: familiei lagundu behar diete haurren ikaste-prozesuan; eta haurrei presentzia eskaini”



# ELKARRIZKETA: KONFINAMENDUAZ ALVARO BEÑARAN

---

## PSIKOMOTRIZISTA

Koronabirusaren krisiak eta itxialdiak haurrengan zer-nolako eragina duen aztertzeko Alvaro Beñaranengana jo dugu. Psikomotrizistak irakasleentzako eta gurasoentzako hainbat gako ematen ditu itxialdi honetan umeei euren garapenarekin eta ikasketa-prozesuarekin jarraitu ahal izateko eta oraingo bizitza hau, bai haurrentzat baina baita helduentzat ere, eramangarriago eta bizigarriago egiteko. Filtroa helduak dira, beraz, helduak ondo egotea da gako

nagusietako bat. Irakasleen egitekoari dagokionez, orain rol bikoitza dutela uste du: “Zentro bezala, antolatu familiei erremintak emateko eta nola-hala haurren ikasketa-prozesua mantentzeko, eta bestetik, teknologiaren bitartez posible baldin bada, haurrei eman noizbehinka presentzia”. Alvaro Beñaran ASEFOP Europako Psikomotrizitate Praktiketako Eskolen Elkarteko lehendakari eta Bergarako Luzaro Psikomotrizitate Eskolako formatzailea da.



**Konfinamendu egoerak, etxetik atera gabe luze egoteak, hainbat arlotan eragiten die umeei. Mugimendu beharra dute, kontaktu beharra dute, harremanak... egoera honetan zein premia nagusi dituzte umeek urratuak?**

Egoera zail honetan argi izan behar dugun lehen gauza da, gure bizitzan aldaketa handia dakarrela. Gure gizarte-egituran, haurrek ordu asko pasatzen dituzte gurasoengandik urrun, eskolan edo eskolaz kanpoko jardueretan. Hortxe dugu lehen aldaketa handia: orain 24 orduz familian egongo dira haur horiek. Beraz, familiek baliabide berriak beharko dituzte euren umeekin egun osoan egoteko, umeeikiko maitasuna ez baita nahikoa egunari aurre egiteko. Soluzio eta erantzun praktikoak behar dituzte orduz ordu egoera berri honetan bizitza aurrera eraman ahal izateko.

Familia bakoitzak egoera honen

aurretik zeukan egoera oso garrantzitsua da, eta asko baldintzatuko du itxiera-egun hauetako egonaldia. Egoera ona baldin bazen, errazagoa izango da egoerari aurre egitea; zailtasunak zituzten familiek zailago izango dute, baina aukera bat ere izan daiteke, gauzak ongi bideratzen saiatzeko.

Mezu hau garbi utzi nahi dut: helduok oso inportanteak gara haurrentzako, ez gara dena izan behar eta ez dugu denbora guztian gainean eta eusten egon behar, baina zaindu egin behar ditugu haurrak, eta zaintzen baditugu eta gure jokoerak zaintzen baditugu, eramangarriagoa egingo zaie egoera; gu gara filtroa. Helduengan dago gakoa: Itxialdi honek haurrengan gehiegizko ondorioak ez izateko helduen galbahe lana funtsezkoa da. Haurrak zaintzen dituzten helduen eskuetan dago errealitatea filtratu eta egoera hau jasangarriagoa egitea.

Horretarako, funtsezkoa da haurrekin etxean dauden helduen arteko elkarlaguntza, elkarlana eta elkarzaintza. Haurrak zaindu ahal izateko, haur horiekin dauden helduek elkar zaindu behar dute. Esate baterako, haurrak oheratutakoan helduek eurentzako denbora hartu behar dute, hitz egin, lagundu, prestatu hurrengo eguna lasaitasunean, zaletasunak mantendu, atsedean hartu... zaindu helduen espazioa, gero haurrak zaindu ahal izateko. Bilatu sistemak helduok ahalik eta ondoen egoteko.

Haurrei begira, 0-8 urte bitarteko haurrek, mugimendua, jolasa, ekin-tza, helduekiko harremana behar-beharrezkoak dituzte, beraz hori guztia zaindu egin beharko dugu, eta mugimendua, jolasa, ekin-tza eta harremanak nola mantendu ditzakegun moduak bilatu beharko ditugu bizitza berri honetan. Alde praktikoari begira, kontura gaitezen egoera



berezi honetan eszitazio handia sortu dela hasieran, dena izan baita ezustekoa. Orain bizitza hau normalizatzen saiatu behar gara, eta erritmoa bilatu behar diogu. Oinarrizko egitura bat eman behar diogu bizitza berri honi. Egitura horretan momentu alaiak egongo dira, inportanteak dira, esate baterako, leihora atera eta komunitatea sendotzen duten erakustaldiak egitea, baina momentu guztiak ez dira horrelakoak izango, eta festa momentuz gain, errutinazkoak egongo dira, eta bi horiek orekatzeko ahalegina egin behar dugu. Otorduek lagunduko digute egunari erritmoa markatzen: gosaria, hamaiketako egin ikastetxean bezala, bazkaria, merienda eta afaria. Haurren adinaren arabera, interesantea da beraiek prestatzea otorduak eta ondoren mahaia jasotzea. Eta otorduak izan daitezela komunikazio momentuak, kendu teknologia familia momentu

horietatik. Otorduen erreferentziek eguneko denbora handia beteko digute, eta gainerakoa betetzeko mugimendua, jolasa, ikasketa-momentuak eta atsedena tartekatuta behar ditugu.

**Etxe askotan, ordea, zail izango da zuk diozun egitura hori mantentzea, familiaren ezaugarriengatik, ahalmenagatik, gurasoen egoeragatik, lanagatik... irakasleak nola lagundu dezake? Zer garrantzia izan dezake egoera honetan irakaslearen erreferentziak?**

Irakasleen rola bikoitza da egoera honetan: Batetik, batez ere 6-7-8 urte bitartean, familiei lagundu behar diete umeen ikaste-prozesuan. Erremintak eman behar dizkiete familiei eta etxeko lanetarako gomendioak eta ideiak ematea interesgarria da — marrazkiak, ipuinak... —. Ikastetxeek hartu behar dute ardura familiei euren haurren ikaste-prozesuan lagunduko dieten egoera aberatsak sortzen laguntzeko. Familiei laguntzeko momentua da, material didaktikoak eta ideiak emanaz egin dezakete euren ekarpena, beraiek dira alor horretako profesionalak. Sare sozialetan ideia asko daude, gehiegi, eta batzuk ez dira gomendagarriak, beraz, hezkuntza zentroek lan interesgarria egin dezakete gomendioak filtratzen.

Bestetik, teknologia berrien bidez irakasleen eta haurren arteko harremana mantentzea interesgarria da, hezitzaileek teknologia berrien bidez kontaktua egin eta irakaslea etxeko telebistan ikustea, esate baterako, handia litzateke haurrentzako. Hezitzaileak beraiekin gogoratzen direla ikusteak asko lagunduko die haurrei itxialdi egoera honetan, eta badaude horretarako sistemak.

0-2 urte bitartean, haurrek euren gurasoekin nahikoa dute, baina gero, haurrak kozkortu ahala, irakaslearekiko harremanez gain, gelako beste familien artean harremanak mantentzea ere interesgarria da. Beste haurrak ikusteak on egingo die, eta horretarako bai, balia ditzagun teknologia berriak. Orain arte teknologia oztopo izan dira askotan gure arteko harremanetarako, eta orain da unea ondo baliatzeko eta harremanak mantendu ahal izateko teknologia

“Mezu hau garbi utzi nahi dut: helduok oso inportanteak gara haurrentzako, ez gara dena izan behar eta ez dugu denbora guztian gainean eta eusten egon behar, baina zaindu egin behar ditugu haurrak”

“Helduengan dago gakoa: itxialdi honek haurrengan gehiegizko ondorioak ez izateko helduen galbahe lana funtsezkoa da. Horretarako, funtsezkoa da haurrekin etxean dauden helduen arteko elkarlaguntza, elkarlana eta elkarzaintza”

“Mugimendua eta emozioak dena batera doaz haur txikiengan, beraz, helduoi dagokigu haurren emozioak ez epaitzea, ez zapaltzea eta bidea ematen eta kontenitzen saiatzea”



erabiltzekoa, oraingo gure bizitzetan argia ikusteko.

Horrez gain, azken urteetan ukitzen ari garen debate bat mahai gainean jarri du egoera honek: indibiduala eta komunitatearen zaintzarena. Itxialdiaren hasieran, irakasleok eta oro har denok, geure buruaz arduratzeko lana hartu dugu lehenik. Baina hemen arazo komunitario bat dago, eta horri ere heldu egin behar diogu: nik nirea bideratu dut, orain has gaitzen komunitate mailan pentsatzen. Irakasle bezala gure biziak antolatuta baditugu lehen egun hauetan, orain heldu diezaiogun berez gizartean daukagun funtzio sozialari, eta saia gaitzen egoera berri honetan ere lan sozial hori egiten. Behar indibidualak eta komunitatearenak orekatu behar ditugu.

### **Une honetan, eskolaren eta familiarren arteko harremana inoiz baino garrantzitsuagoa da, ezta?**

Bai, eskolak ez du ahaztu behar bere funtzioa. Bilatu beharko lituzke sistemak harreman horiek mantentzeko, ez desagertu eta kito. Sortu baliabideak... Orain sortzaileak izateko momentua da, eta hurrek ikus dezatela hezitzaileek gogoa daukatela beraiekin harreman hori mantentzekoa, ez dela lan soil bat eta orain lanik ez dagoenez, ahaztu direla beraietaz.

Ikuspuntua, nire ustez, bidelagun izatearena da: nola lagundu diezaiekegu hurrei eta familiei une honetan? Krisi honetan, profesional bezala, eta zentro bezala profesional talde bezala, zer egin dezakegu familiei laguntzeko? Gainera, kontuan izan behar dugu haur guztiak zentro-

tara bueltatuko dira. Nola bueltatuko dira? Zer egingo dugu orduan? Guztioi komeni zaigu haur horiek ahal den ondoen egotea, eta ahalik eta gutxien kargatzea. Egoera hau ez badugu ongi bideratzen elkarrekin, arriskua dugu elkartzen garenean leherketa handiak bizitzekoa.

Familia bakoitzak bere estiloaren arabera egingo ditu gauzak, orain ezin dute beste familia bat izan. Saia-tu gaitzke gauza batzuk xehetzen, egoera berezia izanik aldaketak egin behar ditugu, baina bakoitzak bere estiloan. Niretzat garrantzitsua da marra gorriak ezartzea: haur txikiei ez zaie gehiegi exijitu behar, ez da momentua, 6, 7, 8 urte bitartean ez dago ikaskuntza exijentzia gehiegi edukitzeko beharrik. Horregatik garrantzitsua da zentroek markoa ematea familiek egoera estimulagarriak sor ditzaten. Marra gorri bat gehiegizko exijentziarena da, eta beste marra gorria da une oro festa batean bageunde bezala bizitzea.

Estimuluak mantentzea garrantzitsua da, familiek ingurune aberatsak eskaintzea, ipuinak irakurtzea, 6, 7, 8 urterekin matematikekin eta zenbakiarekin jolastea... 5-6 urtetik aurrera mahai jolasetan ibiltzea, eta txikiagoak direnean, 0-2 urte bitartean, lurrean utzi, eman objektuak, utzi jolastean.. Haur txikiarekin ondo neurtu eskaintzen dizkiegun materialak. Lasaitasun horretan, konfiantza horretan, giro seguru bat lortzen badugu, beraiek ere garatu ditzakete baliabideak.

### **Irakasleak lan handia egiten ari dira, gehienak etxetik, on-line. Euren gain exijentzia handia baitago, besteak beste, hurrek ez dezaten materia galdu. Haatik, egoera honetan ez irakasleentzat ez haurrentzat, ezta familientzat ere ez da erraza eskolan baleude bezala lan egitea... Gainera, guraso askori ez zaie ari egiten erraza eskolako martxa jarraitzea.**

Adin hauetako haurren kasuan [8 urte bitarte], itxialdian dauden denbora honetan, egiteko nagusia ez da hainbeste eskolako curriculum betetzea eta materia aurreratzea, baina haur hauek ikasteko estimulua mantentzea interesgarria da, irakurtzea, idaztea,

zenbakiekin jolastea... beti ere familiako ekintza bezala, gurasoek ezin baitute profesional bihurtu goizetik gauera.

Egoera honetan, normala den bezala, gurasoak egongo dira arduratuta ea euren seme-alabak ikasketa-prozesuan atzera geldituko ote diren, eta ikastetxetik esaten dieten horretan konfiantza izan behar dute. Hor kokatzen dut nik zentroen egitekoa, filtroa, gomendioak, zaindu familiak... Orain dugun informazio ekaitza ikusirik (sare sozialen bidez bidaltzen diren bideo eta proposamen guztiak ikusirik), ikastetxeek filtro rol hori jokatu dezakete: gurasoei eman ondo zaindutako gomendioak, lagundu ekaitz honetan ez galtzeko. Horretarako familiekin presentzia eta komunikazio bat izan behar du irakasleak, haurren ikaste-prozesuak antolatzen laguntzeko.

Une honetan, gainera, sareetan kontu handia eduki behar dugu, sare sozialetan metodo eta baliabide asko aterako dira, zikinkeria asko ibili daiteke hortik. Eskola zentroak izan daitezke babes filtro garrantzitsua egoera honetan, bidelaguntza eskainiz. Hartara, eskoletatik ikasketa-prozesuan jarraitzeko orientabideak eta jarduerak proposatzen badizkiete, familiak gehiago zentratu ahal izango dira euren egitekoan, familia egitura zaintzen.

**Ziurgabetasun egoera batean gaude guztiok, ez dakigu hau guztia noiz arte izango den, okerrera egingo duen, hobera... horrek irakasleei eta familiei angustia sor diezaike... Nola kudeatu behar dugu ziurgabetasuna, haurrei ahalik eta kalte txikiena egiteko?**

Ez dakigu zenbat denbora luzatuko den hau guztia, beraz, bizitza horrela izango balitz bezala antolatu behar dugu une honetan, ariketa mental hori egin behar dugu: "Hau da momentu honetan daukagun bizitza!".

Ikaste-prozesuari dagokionez oso interesgarria da eskolen laguntza, esan dudan bezala, eta hortik aparte, gurasoek harremanak mantentzeko ahalegina egitea garrantzitsua da, familien arteko sarea sortzea, esate baterako, beste familiekin bideo-

-deiak eginez, adibidez.

Bizitza berri honi erritmoa hartzea garrantzitsua da. Horretarako, lehenengo, egunari erritmoa bilatu behar diogu, jolasa eta festa izan behar dugu, baina atsedeen momentuak hartzea ere interesgarria da, bai atsedena elkarrekin —denok batera pelikula bat ikusiz, adibidez— edo bakarka. Eta haurren atsedinari bezala, helduen atsedena ere garrantzitsua da. Gurasoek ez dute denbora guztian haurrentzat gauzak sortzen ibili behar. Noizbehinka, bi heldu dauden kasuan behintzat, bakarra egon dadila umeei eta besteak atsedean har dezala. Haurrei ere eman autonomia, beraiek jolas daitezela euren kabuz gurasoek beste gauza batzuk egiten dituzten bitartean, saiatu orekak mantentzen, ez izan animatzaileak, joan eta etorri horretan erritmoak bilatu behar dira. Haurrekin joan erabakiak adosten eta bizitza antolatzen. Interesgarria da une hau aukera bezala bizitza, zer baliabide pertsonal ditugun ikusteko aukera daukagu, orain arte asko utzi dugu hezkuntza-zentroen gain, eskolaz kanpoko jardueren gain eta teknologien gain... baliabide pertsonalak berreskuratzeko momentua izan daiteke, erritmo batekin eta erre gabe, hil gabe, iraun egin behar dugu-eta.


**Baliabide pertsonal horiek berreskuratzeko momentu zaila da, ordea. Une batzuetan beldurra eta antsietatea izan ditzakegu helduok, bai birusaren arriskuagatik, lan-egoeragatik, edo beste egoera batzuegatik... Helduok izan dezakegun beldurra nola kudeatu behar dugu umeei ez eragiteko?**

Ez da erraza. Hemen denok ari gara ideiak ematen, baina ez dakigu ondo nola bideratu egoera zail hau. Faktore oso garrantzitsua da nola dagoen pertsona bakoitza, nola gauden helduok. Lehendik ez bageunden ondo, are zailagoa izango da. Horregatik esaten dut sistemak bilatu behar ditugula geure artean zaintzeko. Helduen artean pertsona bat ahulago baldin badago, bestea konturatu eta lagun diezaiola atsedean hartzen, berak hartuz ardura handiagoa. Helduon arteko harremana oso-oso funtsezkoa da une

**“Oinarrizko egitura bat eman behar diogu bizitza berri honi. Egitura horretan momentu alaiak egongo dira, baina momentu guztiak ez dira horrelakoak izango, eta festa momentuez gain, errutinazkoak egongo dira, eta bi horiek orekatzeko ahalegina egin behar dugu”**

**“Familiei laguntzeko momentua da, material didaktikoak eta ideiak emanaz egin dezakete euren ekarpena, beraiek dira alor horretako profesionalak. Sare sozialetan ideia gehiegi daude, eta batzuk ez dira gomendagarriak”**

**“Hezitzaileak beraiekin gogoratzen direla ikusteak asko lagunduko die haurrei itxialdi egoera honetan”**



honetan, hori ondo mantentzen baldin badugu, beste guztia errazagoa izango da. Benetan momentua da elkari gehiago entzuteko, elkar laguntzeko eta helduon artean geure indarrak zaintzeko, egun batean batek denbora gehiago gelditu behar badu ohean, gera dadila, eta besteak har dezala ardura handiagoa. Ez gara denbora guztian biok egon behar haurrekin, ez da hori, kontua da haurrak ondo egotea, eta horretarako, bi guraso dauden kasuan, txandaka daitezke, batzuetan elkarrekin egongo gara, bestetan banaka. Haurrek ere hori ikusi behar dute, eta haurren exijentziak ere kontenitu egin behar ditugu: “Horrela egingo ditugu gauzak, geure buruak zainduz hain justu zuek zaindu ahal izateko”.

Eta kanpora ateratzeko aukerarik balego! Ez dakit nola egin daitekeen, baina 0-2an interesgarria litzateke haurrak gurditxoan bada ere kanpora ateratzea, distantziak eta arau guztiak

errespetatuz, pasiatu eta haizea hartzea... Edo komunitatean aukerarik balego txandaka pixka bat ateratzeko! Haurrek benetako beharra dute. Eta etxean zabaldu leihoak, haurrek haizea eta eguzkia behar dituzte, horrek eragin zuzena dauka euren osasun fisikoan eta animoan. Familia batzuentzat hau izango da egoeraren alde zailena, kalea ikusteko aukerarik ez duten etxeetan bizi diren familien kasuan, balkoirik ez daukaten etxeetan... egoera horiek benetan zailak izango dira.

**Mugimendua galarazita edo mugatua edukitzeak, ikusten dugu askotan haserrea errazten duela... zer lotura dauka mugimenduak eta egoera emozionalak haurren kasuan?**

Aipatu dugun eguneko estruktura horren barruan gorputzarekin eta mugimenduarekin jolasteko momentuak bilatu behar ditugu, beti ere eszitazioarekin eta harrotzearekin kontu

izanda. Mugimenduko jolasak egitea beharrezkoa da. Planifikatu egunero denbora bat mugitzeko jolasak egin ditzaten, eta horrez gain, baita lasai egoteko denborak ere planifikatu. Er-laxazio bat egin liteke esate baterako, edo ipuin bat kontatu.

Bi momentuak bilatu behar dira eguneroko estruktura horretan: mugimenduarena eta atsedena. Egia da familia batzuentzat hau guztia berritasun handia izango dela, lehen geneukan bizimoduaren arabera, honek guztiak aldaketa txikiagoa edo handiagoa ekar dezake.

Haur txikiengan batez ere, 6-7 urtera arte, haurrek ez dute gure pentsamendu logikoa, ez dute erabiltzen pentsamendua erreminta nagusi bezala, beraiek mugimenduaren eta emozioen bitartez adierazten dira. Barruan sentitzen duten hori espresatu ahal izateko ez dute pentsamendu-tresnarik, orduan, urduritasuna, beldurra, haserrea... sentitzen badute,

zailagoa dute hori guztia adierazten. Mugimendu-mailan euren sentimenduak adierazteko aukerarik ez baldin badaukate, normala izango da leherketak errazago gertatzea noizbehinka. Gainera, haur txikia konturatuko da berak lehen zituen ahalmenak desagertu egin direla, egiten zituen gauzak ezin dituela egin... guk egoera azaldu arren, eurek ez dute ulertzen egoera, ikusten dutena bakarrik ulertzen dute.

Mugimendua eta emozioak dena batera doaz haur txikiengan, beraz, kasu honetan helduoi dagokigu gure emozioez gain haurren emozioak ez epaitzea, ez zapaltzea eta bidea ematen eta kontenitzen saiatzea. Leherketak ahalik eta gutxien gerta daitezen, eguneroko estruktura asko zaindu behar dugu. Mugitzeko eta jolasteko aukerak eman behar dizkiegu, planifikatu une horiek haurrentzat.

Gure haurrak nolakoak diren ikusteko momentu ona da, haurrei gustatzen zaizkien gauzak partekatze momentua da, dinosaurioak gustatzen zaizkiela edo kotxeak, edo dena delakoa... partekatu zaletasun horiek eta lagundu beraien gauza horiek espresatzen eta bideratzen, bihurtu zaletasun horiek komunikazio eta harremanerako giltza. Partekatze eta komunikatzeko momentuak areagotzen baldin baditugu, egoera zailak gehiago kontenituko dira. Baina beste behin diot, egoera honetan oso garrantzitsua da lehen nola geunden, baita umeak ere. Ume batzuk oso zailak dira, oso urduriak diren haurrak, asko mugitzen direnak, asko haserretzen direnak, erraz lehertzen direnak... familia horiek gaizki pasatzen ariko dira.

**Itxialdian segur aski pantailen erabilerara asko handitu da: sare sozialetan zabaltzen ari diren proposamenak, irakasleekiko hartu-emanak, beste haur edo familiakideekin harremanak... pantailen bidez ari gara hau guztia bultzatzen. Haatik, urte osoa pasatzen dugu pantailen arriskuaz hitz egiten... Orain pantailak hainbeste bultzatzea ez ote da kontraesan-korra?**

Badago gauza inportante bat jakin behar dena: berez haur batek, berak

teknologia erabiltzeko eta ez alderantziz, teknologiak bera erabil ez dezan, 11 urte baino gehiago izan beharko litzuke, lehenago, haur txikiagoek ez daukate aski tresna beraiek menderatu ahal izateko teknologia. Hori da abiapuntuan kontuan izan behar duguna, eta ez da errespetatzen.

Gaur egun hilabeteak dituzten haurrekin ere pantailak erabiltzen dira, baina kontuan izan behar dugu lehenengo 2-3 urteetan haur bat teknologiaren aurrean uzten badugu pantailako irudiak jasotzen lasaitu dadin, jan dezan... bere estrukturan teknologia sartzen ari garela, eta teknologia ordezkatzeko ari dela bere estruktura pertsonala.

Haurrak berak garatu behar dituen baliabide pertsonalak ordezkatzeko teknologiak, haurra ez baita ari jasotzen helduarengandik baliabide pertsonalak eta harreman pertsonal bat, teknologia ari da hori guztia ordezkatzeko, beraz, haurra barneratzen ari da lasaitzeko, ondo egoteko, jateko... teknologia behar duela, berak ezin baitu garatu baliabide autonomo hori pertsona bezala. Adin horietan oso arriskutsua da haurrak pantailen aurrean uztea.

Gero, 3 urtetik 8 urtera bitartean, haurrek ez dute teknologia modu autonomoan erabili behar, beti helduek bideratua izan behar da eta denbora aldetik ondo neurtua. Teknologiak ez ditu gizakiaren baliabideak eta aukerak ordezkatu behar, laguntzeko erabili behar da, eta haurrek euren kabuz ezin dute erabili 11-12 urtera arte. Lehenago haur bat uzten baduzu pantaila baten aurrean, pantailak menderatuko du haurra.

Egun hauetan teknologiak erabiltzeaz ari garenean esaten dugu baliatu behar ditugula fisikoki posible ez ditugun harremanak sortzeko, beste familiekin egoteko, lagunekin egoteko, hezitzailearen erreferentzia mantentzeko... eta zerbait ikusi behar badugu telebista aurrean, elkarrekin ikusi, pelikula bat, dokumental bat... elkarren ondoan eserita edo besarkatuta, une goxoa izan dadila guztiok atsedean hartzeko. Ez utzi haurrak pantailaren aurrean orduak eta orduak bakardadean, une zail hauetan inoiz baino gutxiago.

**“Irakasle bezala gure biziak antolatu baditugu lehen egun hauetan, orain heldu diezaiozun berez gizartean daukagun funtzio sozialari, eta saia gaitezen egoera berri honetan ere lan sozial hori egiten. Behar indibidualak eta komunitatearenak orekatu behar ditugu”**

**“Adin hauetako haurren kasuan [8 urte bitarte], itxialdian dauden denbora honetan, egiteko nagusia ez da hainbeste eskolako curriculumak betetzea eta materia aurreratzea, baina haur hauek ikasteko estimulua mantentzea interesgarria da, irakurtzea, idaztea, zenbakiakin jolastea...”**

# ESPERIENTZIAK 1

COVID-19 ETA LANBIDE ESKOLAK

## COVID-19aren aurrean, aurpegiak babesteko pantailak egin dituzte hainbat lanbide eskolatan

Askotan ez da beste munduko gauzarik egin behar ingurukoei laguntzeko. Esku artekoarekin eta borondate eta lan pixka batekin, laguntza asko eman daiteke. Halaxe frogatu dute EAEko Lanbide Heziketako ikastetxeek COVID-19ren aurrean: osasungintzako profesionalentzako aurpegia babesten duten pantailak inprimatu dituzte, 3Dko inprimagailuak eta ikastetxeen arteko sarea baliatuz.

**M**artxoaren 23an jarri ziren martxan EAEko 54 lanbide eskoletako 3Dko inprimagailuak; ikastetxeak itxi eta handik hamabost egunetara Arabako kasuan eta hamar egunetara Bizkaiko eta Gipuzkoako kasuan. Ikastetxeak hutsik egon arren, une honetan osasungintzan dauden beharrei eta hutsuneei erantzuteko modua bilatu dute eta birritan pentsatu gabe



Osasungintzako langileentzako aurpegirako babesgarriak egiten ari dira lanbide eskolatan: 3D inprimagailuetan egindako diademai plastikozko babesgarria lotzen diete.

ekin diote euren esku dagoena egiteari: aurpegia babesten duten pantailak. Izan ere, koronabirusaren hedapenak ekarri duen arazo eta beharretako bat da hori: material nahikorik ez izatea osasun arloan ari diren langileak babesteko.

Lanbide Heziketako Berrikuntza zentroa den Tknika izan da ekimen hau koordinatu duena eta bertako zuzendari Jon Labaka buru-belarri aritu da egitasmo honetan. “Martxoaren 20an Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako sailburuordetzatik enkargu bat jaso genuen eta zer egin genezakeen begiratzan hasi ginen Tknika zentroan”. Mundu mailan halako mugimendu bat bazegoela konturatu ziren eta hainbat *maker* edo sortzaile elkartzen eta antolatzen

ari zirela osasun-materialen gabeziari aurre egiteko, eta horretarako 3Dko inprimagailuekin hainbat eredu eta material sortzeari ekin ziotela. Euskal Herrian bertan ere bazebilen talde bat lan horretan, CovidEuskadi. EAEko 400 *maker* inguru biltzen dituen taldea da eta orain arte hobby gisa aritzen baziren ere, osasungintzako langileak ahalik eta ondoen babesteko materiala egiteari ekin diote azken asteotan. Zehatzago esanda, 12.300 aurpegirako pantaila babesgarri egin eta banatu dituzte ospitaleetan. “Geuk ere aurpegirako babesgarria egiteko erabakia hartu genuen, baina konturatu ginen eredu askotarikoak zeudela eta, guk, egitekotan, baliozkoak egin nahi genituen, benetan balioko zutenak”, dio Labakak.



## Medikuen iritziak balioetsiak

Alderdi horri berebiziko garrantzia eman zioten eta ezertan hasi aurretik eredu bat baino gehiago egiteari ekin zioten. Egun eta erdi jardun zinen horretan: diadema desberdinak diseinatzen, plastiko desberdinekin probak egiten, biak lotzeko piezak probatzen... eta egindako eredu desberdinekin Urdulizeko ospitale-  
ra joan ziren, han probatu zitzaten eta egokiena zein zen esan zezaten. “Osasun Sailarekin eta medikuekin batera aritu gara, haiekin kontsultatuz eta haiei entzunez, eta uste dut horretan asmatu dugula; haien gomendioak entzun eta haiek esandako ezaugarriak dituzten babesgarriak egin ditugu, eta horrela, badakigu erabilgarriak eta baliogarriak direla”, gaineratzen du Labakak.

Urdulizeko ospitalean medikuek probatu egin zituzten babesgarri eredu desberdinak eta balio zutela esateaz gain, haientzat aurpegiko babesgarriak eduki beharreko ezaugarriak zein ziren ere adierazi zieten: plastikozko pantaila modu sendoan finkatu behar zela, ezin zela mugitu, mugitzen bazen lanerako traba asko egiten zuela; garbitzeko edo desinfektatzeko aukera izan behar zuela; gomarik ez edukitzea; eta plastikozko pantaila aldatzeko aukera izatea markatzen bada edo edozer gauzogatik hondatzen baldin bada.

“Behin medikuen iritzia entzunda, ezaugarri horietatik gertuen zegoen eredu hautatu, egokitu, moldatu eta eredu berria finkatutakoan, EAEko lanbide eskola guztiei posta elektronikoko bat bidali genien. Urdulizeko ospitalak baliozkotzat jotako eredu hori inprimatzen hasi nahi al zuten galdetu genien”, dio Tknikako zuzendariak. 54 ikastetxe agertu ziren prest eta hurrengo egunean ekin zioten aurpegirako babesgarriak inprimatzeari.

Iurretako Lanbide Eskola izan zen horietako bat. 3Dko bost inprimagailu dituzte ikastetxean, bi elektronikok erabiltzen dituztenak eta beste hirurak fabrikazio mekanikoan. Kepa Goenaga irakasleak hiru inprimagailu eraman zituen etxera eta trastelekuan ipini, eta beste irakasle batekin beste bat eraman zuen. “Aurpegirako babesgarriak hiru zati ditu, nolabait


esatearren: diadema, plastikoa eta plastikoa diademara lotzeko piezak. 3Dko inprimagailuan diademak inprimatu ditugu. Nire kasuan, egindakoak goizero eskolara eraman ditut. Han beste bi irakasle aritu dira plastikozko pantailak prestatzen eta horiek diademetara lotzen. Eta behin hori dena eginda, Tomas Maguregi zuzendariak eraman ditu Bilboko Emilio Campuzano ikastetxera”, kontatzen du Goenaga irakasleak.

Guztira 60 babesgarri inprimatzea lortu dute eta pozik daude. “Lagundu baldin badezakegu, lagundu egingo dugu, zalantza barik eta gustura, gainera”, dio Goenagak.

## Lanbide eskoletatik ospitaleetara iritsi dira

Arabako lanbide eskoletako babesgarriak Gasteizko Mendizabal lanbide eskolan bildu dituzte, Bizkaikoak Bilboko Emilio Campuzanon eta Gipuzkoakoak Errenteriko Tknikaren egoitzan. Eta handik Euskal Herriko ospitaleetara bidali dituzte. Martxoaren 23tik 27 aritu dira babesgarriak egin eta egin, egunetik egunera ekoizpena handituz. “Azken egunean, esate baterako, 1.000 inguru jaso genituen Gipuzkoan, eta horietatik 500 *makerrek* bidalitakoak izan ziren, haiekin ere lankidetzan aritu gara”, kontatzen du Labakak. Ez dakite zehatz mehatz zenbat babesgarri bidali dituzten, ikastetxe batzuetan bi inpresora baituzte eta beste batzuetan hamar. “Edonola ere, garrantzitsuenak da bakoitzak ahal duena ekoizti duela eta denek egin dutela ahal dutena”.

Ekoizitakoa banatzeko aurretik duten sareaz eta antolaketaz baliatu dira lanbide eskolak, eta hori giltzarria izan dela azpimarratzen du Labakak. “Horrelako ekimenak mundu osoan daude, baina eskualde desberdinetako ikastetxeak koordinatzea, ikastetxeak egiteko, jasotzeko eta entregatzeko prest egotea... hori zailagoa da, eta guk gaitasun hori badugula erakutsi dugu. Lehendik daukagun sarea erabili dugu: 54 ikastetxe aritu gara, elkar ezagutzen dugu, telefonoak eta korreoak daukagu, ohituta gaude ikastetxe guztien artean proiektuak koordinatzen, Tknika daukagu... Erraza egin zaigu ohituta gaudelako”.



3Dko inprimagailuetan egin dituzte diademak.

## Gertutik gertura, eskualdera

Hemendik aurrera, ordea, ospitaleetara bidaltzeko materiala Bizkaiko enpresa batek egingo du. “Injekzio bidez egiten dute lan eta modu horretara askoz ere diadema gehiago egiten dira; 3Dko inprimagailu batean ordu eta piku kostatzen da diadema bat egitea, eta injekzio bitartez ordubetean 200 egin daitezke”, azaltzen du Labakak.

Lanbide eskoletan ez dira eskuak gurutzatuta geratuko, ordea. Babesgarriak egiten jarraituko dute, baina ospitaleetara bidaltzeko partez eskualdeko anbulatorioetara, zahar egoitzetara, larrialdetara eta abar bidaliko dituzte. “Zentro txikiagoak dira eta material gutxiago behar dute, eta agian horrexegatik beragatik zailagoa suertatzen zaie Osasun Sailetik jasotzea, ospitalak aurretik dituztelako behar gehiagorekin”. Lanbide eskolek eskualdearekin duten gertutasuna baliatuz, hurbileko horiei banatuko dizkiete babesgarriak. Gainera, zenbait lanbide eskoletan osasungintzarekin erlazionatutako heziketa zikloak eskaintzen dituzte eta horiek harreman estua izan ohi dute anbulatorioekin, zahar egoitzekin eta abar, ikasleek bertan egiten dituztelako praktikak maiz.

“Medikuek esandako ezaugarriak dituzten babesgarriak egin ditugu, eta horrela, badakigu erabilgarriak eta baliogarriak direla”

Jon Labaka  
Tknikako zuzendaria

# ESPERIENTZIAK 2

MAGNET-ERAKARRI PROIEKTUA BARRUTIA IKASTETXEAN

## Ikastetxera ilusioa ekarri duen proiektua

Ikasturte berezia izaten ari da 2019-2020koa Gasteizko Barrutia eskola publikoan, eta ez koronabirusak eragindako konfinamenduagatik soilik. Mugimendu berezia dago, ilusio berri bat antzematen da ikasleengan, gurasoengan eta irakasleengan. Eskolako atarian zintzilik dauden koloretako banderolek ere horixe adierazten dute. Eta Magnet-Erakarri proiektua da horren erantzulea. Hiru urterako abiatu duten proiektu honekin, artea ardatz hartuta ari dira curriculum lantzen eskolan.



Ikasleek eskolarekin lotzen dituzten hitz nagusiak ikastetxe sarreran eskegi dituzte.

**T**eresa Rodriguez zuzendariak ongi gogoratzen du iazko ikasturte amaieran Eusko Jaurlaritzak egin zion deia. Hezkuntza Sailak EAEko lau ikastetxetan Magnet-Erakarri proiektua martxan jartzeko asmoa zuen, eta hautatuko ikastetxeetako bat Barrutia eskola izan zen (beste hirurak Gasteizko Angel Ganivet, Bilboko Basurto eta Elgoibarko Herri Eskola izan ziren). Programa honen helburua ikastetxeak dinamizatzea, biziberitzea eta daukaten ospea handitzea da. AEBn du jatorria, han sortu zen 70eko hamarkadan, eskola publi-

koen prestigioa handitzeko asmoz. 2012-2013 ikasturtean, Kataluniako 14 zentro publikotan abiarazi zuten esperientzia pilotu gisa, eta gaur egun ere jarraitzen dute. Bofill erakundeak babesten du Katalunian, eta, diruaz gain, aholkularitza eta laguntza handia eskaintzen dizkiete ikastetxeei.

Barrutia eskolako klaustroan gaia aztertu zutenean, ia aho batez onartu zuten programan parte hartzea. Rodriguez zuzendariak dioenez, “programaren helburua matrikulazioa igotzea zela esan ziguten, ikastetxeari prestigioa ematea eta jendea erakaritzea”. Baina klaustrokideek horri



Ni, gu, hura, islak dokumentala egitean irudiaren hainbat alderdi lantzen aritu ziren ikasleak.

baino garrantzi handiagoa eman zioten programak ematen zituen aukera berriei; alegia, aproposa ikusi zuten proiektu berritzaile bat sortzeko eta eskolari beste buelta bat emateko. “Berdin zaigu kanpoan zer gertatzen den, matrikulazioa igotzen den edo ez, guretzat baliagarria bada, aurrea” zioten. Eta horixe ikusi genuen, aberasgarria izan zitekeela guretzat, umeentzat eta familientzat”. Azken finean, zuzendariak argi dio euren helburua ikasleen emaitzak hobetzea dela, bikaintasunerantz eramatea. Zentzu horretan, ikasleen emaitzak eta garapena hobetzeko zer egin dezaketen behatzen dute, eta Magnet-Erakarri programak horretan lagundu diezaiekeela ikusi zuten lehen momentutik. “Guretzat eta umeentzat ona iruditzen zitzaigun, bai eta umeen bizipoza ekar zezakeela ere”.

Barrutia eskolan badituzte beste hainbat proiektu martxan aurretik: ikasketa kooperatiboa, binakako irakurketa, bertsolaritza, musika 2 urtetatik, ipuin-kontaktak adin desberdinekoen artean... Berrikuntzetan parte hartzea beti gustatu izan zaiela diote. Oraingo proposamen berri honekin, aurreko proiektu guztiak biltzeko eta batzeko aukera ikusi dute; beste modu batera esanda, aurreko proiektu guztiak biribiltzeko aukera eman die.

#### Paperetik praktikara

Magnet-Erakarri proiektuaren oinarria arlo jakin bat aukeratu eta

horren inguruan askotariko hezkuntza-jarduerak egitea da, guztiekin curriculuma landuz. Eta, horretarako, inguruko erakunde baten laguntza jasotzen du ikastetxeak. Barrutiaren kasuan, artea da aukeratu duten arloa, eta artearen bidez ari dira lantzen curriculumeko hainbat gai. Bidelagun duten erakundea, berriz, Gasteizko Artium Museoa da. “Euskara ardatz, artea bide” goiburua aukeratu dute proiekturako, eta sormen-baliabide hori irakaskuntzarako tresna metodologikotzat hartuta ari dira jarduerak egiten.

Arduradun bat izendatu dute hasieratik proiekturako, Mari Mar Bueno ikastetxeko irakaslea, eta hark argi ikusi zuen arteak izan behar zuela programa honetan jorrazteko gaia: “Ni musikaria naiz, eta lotura handia daukat artearekin. Hainbat urtean bizi izan dudaren ondoren, bizipen oso onak izan ditut artearen bidez. Badakit edozer gauza lant daitekeela artearen bitartez, ez bada diziplina bat beste bat: antzerkia, ahozkotasuna, arte-adierazpena... Herri bateko kultura-adierazpena eta herrialde horren ezaugarriak lant ditzakezu artearen bitartez; badakigu musikaren bitartez ezkerreko eta eskuineko hemisferioen arteko lotura lortzen dela, musikak ere matematika dauka oinarrian... Orduan, gozatuz edozein arlo lantzeko erreminta paregabea iruditzen zitzaidan”. Hala, herrialde bat landu behar denean, herrialde

horretako margolan bat hartu, eta, horren gaineko hausnarketa eginez, hango klima, bizimodua, ohiturak... ezagut daitezke. “Eta bada beste alderdi bat ere: artean eta arte-adierazpenean berdin dio nolako gaitasuna duten umeek, erantzun guztiak onak dira, positiboak dira, aberasgarriak dira, eta haur guztiak sentitzen dira baloratuak. Hau da, agian egongo da ikasle bat Matematika ikaragarri kostatzen zaiona, baina artearen adierazpen hauetan baloratuta sentituko dena, haren iritziak balioa izango baitu.

#### Bulegoa eta ordutegian lekua, garrantziaren adierazle

Ikastetxean bulego bat ere jarri dute, atean, Magnet-Erakarri jartzen duena, eta, horrela, irakasle, guraso eta ikasle guztiak badakite, programaren inguruko zerbait jakin nahi badute, horra jo dezaketela Mari Mar Buenorengana. Tokia eta presentzia eman diote, eta horren adibide da ordutegian ere egin dioten lekua: ikasle guztiak momentu berean Magnet-Erakarri ordua daukate idatzita ordutegian. “Ikasleek badakite ordu horretan denak Magnet-Erakarri proiektua lantzen egongo direla”, dio Rodriguezek, eta Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzara arteko ikasle guztiez ari da. “Hori izan zen lehendabiziko pistola-tiroa”, gaineratu du Bueno proiektuaren arduradunak. “Ordutegian hori irakurri, eta denak galdezka genituen, Magnet-Erakarri zer zer jakin nahi zuten”. Ordu hori iristean, talde bakoitza bere tutorearekin egoten da, eta

**“Gozatuz edozein arlo lantzeko erreminta paregabea iruditzen zait artea, eta erantzun guztiak dira onak eta aberasgarriak”**

Mari Mar Bueno  
Magnet-Erakarriko arduraduna

## ESPERIENTZIAK: MAGNET-ERAKARRI PROIEKTUA BARRUTIA IKASTETXEAN



“Nolako nahi duzu izatea zure eskola?” galdetu zitzaizen ikasleei eta hitzen lantegian atera ziren hitzekin eskolaren erdiko aretoan erakusketa bat jarri zuten. Hasierako itxura erabat aldatu zitzaion erdiko areto edo gunere horri, argazkietan ikusten den moduan.

irakasle espezialistak haiei laguntzen aritzen dira.

Hasteko, Gorputzaldiak saioekin hasi ziren ikasturte hasieran. Jolasaren, musikaren eta gorputz-adierazpenaren bidez, askotariko dinamikak egin dituzte, eta hainbat balio landu dituzte: enpatia, konfiantza, sentsibilizazioa...

Bigarren jardura hitzen lantegia izan zen, Nerea Lekuona artistak 4., 5. eta 6. mailako ikasleekin egindakoa. Galdera hau egin zieten ikasleei: zer gustatzen zaizu eskolaz? Nolako nahi duzu izatea zure eskola? Bakoitzak hitz bat aukeratu zuen gustatzen zitzaion hori adierazteko. “Enpatia hitza asko atera zen. Baita errespetua, laguntasuna, lankidetzare” Gero, taldeka jarri ziren, eta talde bakoitzak bere hitza aukeratu zuen. Horrela, gela bakoitzean sei hitz atera ziren. Lekuona artistak hizkiak egiteko modu desberdinak eta hizki mota asko ekarri zitzaizkien, eta erakusketa bat antolatu zuten horietan. Behin erakusketa bukatuta, hitz horiek guztiak bildu, fotolitoak egin, inprimategi berezi batera eraman, eta ikastetxeko sarreran jarri dituzte eskegita. Maitasuna, lagunak, enpatia, etorkizuna, irakasleak eta errespetua izan dira hitz nagusiak.

Orain, jardura horri jarraipena emango diote: 4., 5. eta 6. mailako ikasleak Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urtekoengana eta Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailara joango dira haiek ikasi dutena haiei erakustera, haien mailara egokituta.

“Gurasoekin ere egin genuen hitzen lantegia”, gehitu du Buenok. “Arratsalde batean, haurrak eskolan zeuden bitartean etorri ziren, eta galdera bera egin zieten. Iritziak eman zituzten, eta Haur Hezkuntzako eraikinean jarri zituzten ikusgai. Garrantzitsua iruditzen zaigu gurasoekin ere lantzea”.

Hirugarren jardura Jon Ander Sanchez eta Antton Goikoetxea musikariek egin zuten. Ikasleek musika elektronikoarekin esperimentatzeko lantegi bat antolatu zuten, jarrera ireki eta esperimental batetik abiatuta, musika egiteko hainbat era ezagutzeko asmoarekin. Sintetizadorearekin, eritmo-kutxarekin, mikrofonoarekin,

bonboarekin eta danbor elektrikoa-ekin, 1., 2. eta 3. mailako ikasleek euren musika-lanak egin eta grabatu zituzten.

Bien bitartean, 4., 5. eta 6. mailako hamalau ikaslek dokumental poetiko bat egin zuten, Jorge Moneo eta Rikardo del Conde zinemagileen laguntzarekin. *Ni, gu, hau, islak* dokumentala izan zen emaitza, baina hainbat gai landu zituzten bidean: irudia nondik ateratzen den, zergatik, nola begiratu behar den, nola entzun, nola aditu... “Ondoren, grabaketak egin zituzten ispiluekin, auzoko txoko kuttunenean, eskolako toki gogokoenean eta abar”, azaldu du Buenok. “Eta, azkenik, norberaren eta ikaskideen erretratuak egin zituzten. Horrekin osatu zuten dokumental poetikoa”.

Jarduera horiekin guztiekin Matematika, Naturaren Zientziak zein Euskara lantzen dituzte. Denak lotzen dituen proiektua da.

### Aurkezpena Artiumen

Jarduerak abenduaren 18an Artiumen egin zuten aurkezpenean eman zituzten ezagutzera. “Hurrek eman zituzten azalpenak aurkezpenean izan ziren 400 lagunengandik, ordura arte bizi izandakoaren testigantza emanez”, gogoratu du Rodríguez zuzendariak. “Egun horretan estreinatu zen dokumentala, eta ikusgai egon zen Artiumen Gabonetan. Aurkezpen-egunean, eskolan egindako lantegiak jarri zituzten, ikasleek familiekin egiteko: hitzen lantegia, musika eta abar. Jendea lantegi horietara joan zen aurkezpenaren ondoren”.

Horrekin eman zioten bukaera lehen hiruhilekoari. Jarduera asko hilabete gutxian. “Horixe esaten ziguten”, dio, umorez, Buenok. “Aurrena, hausnartzeko esaten ziguten, abiadura handiarekin hasi ginela, eta trankil egoteko. Hausnartu? Hausnartu bitartean ilusioak alde egingo digu, esaten nien. Lehen urtea pentsatzen eta hausnartzen pasatzen badugu, jendea ilusioa joango zaio”. Jendea ilusionatzea lortu dute, eta ezin diote esan “orain hausnartu egingo dugu”. Hausnartu eta egin, biak batera egin nahi dituzte, hanka sartu eta atera, ilusioa lagun dutela.

### Jarduera bete esku

Lehen hiruhilekoko jardueren ondoren, bigarrenekoekin hasita daude. Orain dela bi urte, jolastokia eraldatzeko ideia bueltak ematen hasi ziren, beharra ikusten zutelako eta argi ikusten zutelako aniztasunari erantzuteko hori egin behar zela. “Une honetan bultzada bat eman nahi diogu horri”, azaldu du Rodríguezek. “Gurasoak proiekturako diru-laguntza lortu nahian dabilta, eta Artiumekoak arkitektoarekin jarri dira harremanetan”. Horrez gain, ostegun arratsaldeetan guraso talde bat elkartzen da, eskola apaintzeko gauzak egitera.

Ikasleekin batera, munduko hainbat herrialde ezagutuko dituzte. “Ipuin batetik abiatuta, munduari bira emango diogu hamabi herrialdeetatik barna” dio proiektuaren arduradunak. “Maila bakoitzak herrialde bat eta hango animalia bat aukeratu du. Animalia horien ezaugarriak ezagutuko dituzte, eta, ondoren, herrialde horretako musika, dantzak, arte-adierazpen plastikoak eta abar landuko ditugu. Bukaeran, performance bat egiteko asmoa daukagu”.

### Artiumekin elkarlana

Artiumekin duten lankidetzak oso positiboa eta baliagarria dela diote ahoz Rodríguezek eta Buenok. Orain arte, beti egin ohi zuten bisita Artium Museora talderen batekin, baina ikasle guztiekin joan dira aurretik. Ikasle zein irakasleek museoa ezagutu dute, hango hezkuntza-arloaren eskaintza ezagutu dute, eta museoko arduradunek ikastetxea bisitatu eta proposamenak egin dituzte. “Harreman estua dute artistekin, eta artista asko ezagutzen dituzte. Haien laguntzaz lortu dugu artistak gure ikasleekin jarduerak egitea etortzea”, diote Rodríguezek eta Buenok. Azken finean, elkarri zer eskaini eta eman diezaioketen ikusi dute, eta hortik bideratu dute lankidetzak. Rodríguezek dio begirada aldatzen lagundu diela, gauzak beste modu batera ikusten, artearen ikuspegitik lantzen. “Bada Artiumekoekin ikasi dugun beste gauza inportante bat ere: galdera irekiak nola egin. Denok dakigu garrantzitsua dela ikasleei galdera irekiak egitea, baina, horre-

“Artiumekoekin dugun lankidetzak begirada aldatzen lagundu digu, gauzak beste modu batera ikusten, artearen ikuspegitik lantzen”

Teresa Rodríguez zuzendaria



Gurasoek ere parte hartu zuten hitzen lantegian.

kin batera, garrantzitsua da jakitea galdera irekiek erantzun irekiak eduki ditzaketela; alegia, agian ez digutela guk nahi dugun erantzuna emango, ez dutela guk nahi dugun gaira joko. Galdera irekiak egin behar dira, baina ez bideratuak. Agian, guk nahi ez dugun lekura iritsiko dira, baina utzi egin behar zaie. Eta hori da zaila, ez baikaude ohituta”.

Ikasleei ematen zaizkien erantzunak ere ondo pentsatu beharrekoak dira. Argi erakutsi diete “oso ondo” bezalako balorazioa edo “zergatik?” galdera saihestu behar direla. Barneratuta dauden erantzunak dira, automatikoak ia; alta, ez dira ego-kienak ikasleentzat. Hobe “zeinen interesgarria” edo antzekoa erantzutea. Ikaslea baloratu behar da, baina beste modu batera, eta hori ikasi dute Artiumekoekin.

# EKARPENAK 1

‘ESKOLA PUBLIKOA EZ DA EUSKAL HERRIAN BEHAR DUGUN ESCOLA PUBLIKOA’ LIBURUA

## Josu Txapartegi eta Fito Rodriguez: “Herriarena dena publikoa da”

Josu Txapartegi *Txapasek* (Zarautz, 1946) eta Fito Rodriguezek (Gasteiz, 1955) *Eskola publikoa ez da Euskal Herrian behar dugun eskola publikoa* liburua idatzi dute (Delta argitaletxea), euren esperientziatik euskal eskola publiko nazionalaren bidean ekarpen eraikitzaile bat egiteko helburuarekin.

**Zergatik atera duzue orain hainbeste urte eta gero, publikotasunaren gaia mahai gainera?**

**Josu Txapartegi Txapas:** Orain dela urte asko liskar handi bat izan nuen Donostian, kalean, lagun batekin. Zer biziki defendatu zuen bakoitzak bere ideia! Hark esaten zuen ikastolak pribatuak zirela, eta nik esaten nion bera ez zela inor esateko ikastolaren iritzien gainetik ikastolak zer ziren edo zer izan nahi zuten. Ideia hori, geroztik, autonomismoaren ideologiaren eskutik, asko zabaldu da, eta sarri entzuten dut inguruan halakok esan duela ikastolak sobera daudela eskola publikoa badaukagulako. Euskal Herrian erro nazional batzuk galtzen ari garela ikusita eta ideologia horrekin kezkatuta, hasi nintzen lerro batzuk idazten.

**Atzera begira jarrita, testuinguru historikoa azaldu duzue liburuaren hasieran. Nola antolatu dituzte Espainiak eta Frantziak euren hezkuntza-sistemak, eta zer eragin izan du antolakuntza horrek naziogintzan?**

**Fito Rodriguez:** Funtsezkoa da jakitea Espainiako hezkuntza-siste-



Fito Rodriguez eta Txapas liburua aurkezten Plaza Hutsa ekimenean.

ma Frantziakoaren kopia bat dela. Espainian “irakaskuntza publikoa” deitzen da, baina, berez, “irakaskuntza nazionala” da, hizkuntza-eredutik hasita, planteatzen diren funtsezko curriculum-edukietaraino.

Frantziako Iraultzarekin, ikuspegi jakobinoa eta zentralista planteatu zen, eta, horretarako, funtsezkoa izan zen armada berrantolatzea:

jende guztiari ireki zitzaion armada, eta gauza bera egin zen irakaskuntzarekin. Alegia, hizkuntza guztiak desagerrarazteko bidean jarri zituen hezkuntza-sistema bat antolatu zuen Frantziak. Segituan etorri ziren kexak. Asanblada nazionalak biltzen zirenean, hizkuntzen gaineko kexak biltzen zituzten: Alsazian alemanieraz hitz egiten dutela; Britainian,

bretoieraz; Okzitanian, zer esanik ez... Euskal Herrian euskaraz hitz egiten dela... Hezkuntza nazionalak frantsesa ezarri zuen. Bi mendetan oso modu eraginkorrean lortu zuten hor zeuden hizkuntza guztiak eta hezkuntza-eredu guztiak ezabatzea.

Espainian, antzeko zerbait egin zuten, baina ez dute Frantziako eraginkortasunik izan, eta ezin izan dute erabat ezabatu katalana, galegoa eta euskara, ezta antzinako hezkuntza-eredu zaharrak ere.

Francok ezarritako eskola *nacional* horiek dira gaur egun *eskola publiko* deritzenak. Liburuan azaltzen dut Pio Cabanillasek aldatu ziela izena. Frantzian oraindik ere *école nationale* dira.

Anekdotat bat: 1936ko urriaren leian, estatu-kolpearen agiria kale-ratu zuen Francok Burgosen: “Guk nahi dugu estatu totalitario bat, non hizkuntza bakarra gaztelera izango den eta izate bakarra espainola izango den”. Egun berean, Oñatiko eta Erretereriako ikastolak eta beste lau ikastola itxi zituzten, garai hartan jada ikastola bezala funtzionatzen ari zirenak. Horren memoria ere galdua daukagu.

**Hainbat kezka jarri dituzue mahai gainean. Lehena, publiko hitzak: “Publiko hitzak, euskaldunontzat, iruzurra dakar berarekin” esanez hasi duzue liburua. Publiko eta pribatu kontzeptuak forma berriak hartzen joan dira testuinguruz testuinguru. Zer adiera nagusitu da hezkuntzari dagokionez?**

**Txapas:** Espainian gertatzen ari den aldaketa ezkertiarra dela-eta, arriskua ikusten dut *publikoa dena* “Gobernutik datorren hori” balitz bezala interpretatzekoa; hau da, Gobernua gu guztiok ordezkatzeko gaituena balitz bezala. Publikotasunaren zentzu horrek kezkatzen nau. Gure kasuan, beste publikotasun bat defendatzen dugu guk, hitzaren jatorrizko zentzuan. Publikoak erro herritarra dauka, *populus*-etik dator, herriarena dena da publiko. Publikotasunaren zentzu zaharrak eta portaera komunitarioen tradizioak luze mantendu dira euskaldunon artean. Komunitatearen eginkizun gisa ulertu izan dugu eus-



kaldunok publikotasuna; ondare gisa, herriarena izanik denon artean zaindu beharrekoa.

**F.R.:** Ezin da parekatu modu sinplean publiko eta estatala, faltsua baita. Herri honek eskola publiko behar duela ikusten dugu, baina ez orain dagoen eskola publiko. Horretarako, beharrezko ikusten dugu hainbat eragileren arteko lotura, eta orain lotura hori ez da existitu ere egiten. Are gehiago: lubakiak jartzen dira, eta guk lubakien gainetik pasabideak jarri nahi ditugu.

Horrez gain, kontuan izan behar dugu mundua aldatzen ari dela, eta gure garai honetan ikusten dugu pribatizazio neoliberal berriak ari direla sortzen. Unibertsitate publikoak ari dira pribatizatzen, eta osasungintza ere pribatizatzen ari dira. Laster, jarraipen pertsonalizatu bat egongo da, bai osasungintzan, baina baita irakaskuntzan ere. Norberak egingo du bere curriculum propioa neoliberalismo horren arabera, betiere ikuspegi kulturala galduz, hezkuntza herritar horrena norbanakoarena eginda. Hori da guk azpimarratzen duguna, *gutasun* hori, indibidualismoaren eta liberalismo forma berrien aurrean.

**Horri oso loturik, ikastolei “pribatu” deitze hori ezbaian jarri duzue, eta goitik behera desmuntatu duzue “pribatutasun” hori.**

**F.R.:** AEK pribatua da? UEU pribatua da? Seaska pribatua da? Jakina, pribatuak dira! Horrek esan nahi du erakunde horiek ez direla herritarrrak? Horrek esan nahi du ez direla funtsezkoak? Mesedez!

Egia da, eta kontuan hartu behar dugu ikastoletan ere egon daitekeela pribatizatze arriskua, matrikula behar delako, eta, horren ondorioz, *gutasuna* eta herritartasuna galtzeko arriskua egon liteke. Eta izango dira ikastola batzuk pribatuak direnak, eta eliteentzako pentsatuak direnak, baina beste ikastola asko eta asko langileek sortu dituzte langileen auzoetan, herriak eta herriarentzat.

**“Ezin da parekatu modu sinplean publiko eta estatala, faltsua baita. Herri honek eskola publiko behar duela ikusten dugu, baina ez orain dagoen eskola publiko”**



**Txapas:** Bi kontzepzioak parez pare jartzen dira: alde batetik, ikusten da publikoa instituzioek manejatzen duten hori dela; baina, era berean, herriak sortu duena ere publiko gisa ikusten dugu. Pribatutasunak zentzu negatiboa hartu du: bakoitzak berea defendatzen duen ikuspegi liberalek ulertzen dugu pribatua, eta ez du zertan hala izan.

**F. R.:** Hezkuntza ikuspegi herritarretik antolatu behar dugula pentsatzen dugu, eta ez dela gelditu behar, ez estatuaren esku, ez eta eskolen esku soilik ere. Hiria antolatu behar da, ez pribatizatzeke moduan, baizik eta hiri hezitzailearen ikuspegitik. Estatua behar dugu, jakina, baina behar dugu, besteak beste, herri-kulturari bidea emateko. Hori lortu zuten Finlandian, adibidez.

**Euskal eskola publiko nazionalerako bidean egin nahi duzue ekarpena liburu honekin. Eskola publiko nazionalaren helburua ez da lortu... zein dira bitarteko urratsak?**

**Txapas:** Gaur egin dezakegun gauza garbi bat da zera da: beste sareen kontra ez hitz egin. Oraindik, bata besteari harriak botatzen ari gara. Apaldu, eta pentsatu besteak ere bizitzeko esku-

bidea daukatela, eta haien ideologia errespetatu egin behar dugula. Gerra hori pixka bat apaltzen badugu, has gaitezke pentsatzen herri hezitzaile baten alde. Guk momentu honetan esaten duguna da elkartzearen aldeko mugimenduak egin behar direla.

Gure ikuspegiarekin erabat bat dator *Hik Hasiren* hezkuntza-proposamena. *Hik Hasik* markatu duen hori da bidea; orain, gauzatu egin behar dugu.

**F. R.:** Euskal eskola publiko borrokagarri dugu. Eta borrokarako hainbat erreferentzia behar ditugu, baterakuntza lortu ahal izateko. Orain gertatzen dena da guztiz bereizita daudela erreferentzia guztiak, eta, beraz, eragileak ere bai. Guk nahi duguna da lanean ari diren protagonistak euren artean antagonista izan beharrean elkarrekin aritu daitezela bideak irekitzen.

**Sareen arteko liskarra nabarmena da, jaiotze-tasa beheraka doa... eta honek aterabide zaila dauka. Nora garamatza jokaera honek?**

**F. R.:** Eta aldaketa gehiago datoz. Ez bakarrik etorkin askoz gehiago dagoelako eta mundua gehiago globalizatu delako, baizik eta gero eta

eskaintza gehiago sortuko direlako. Donostian, adibidez, sortzeaz dago li-zeo frantses bat, badaude hiru eskola ingeles, eskola aleman bat... Kanpoko unibertsitateak ere hona etorriko dira, campus baten bila ari da, adibidez, Cambridge. Irakaskuntzako eskaintza gero eta zabalagoa izango da. Guk ez dugu esaten hori txarra denik, baina, horren aurrean herri gisa lortu behar dugu gure sistemaren ardatzak finkatzea.

**Nola pasatu gaitezke sareen arteko elkarlanera? Hauxe esaten duzue liburuan: "adostasun zabal bat bada-gore artean hezkuntza-ereduari buruz: eskola parte-hartzailea, inguruari lotua, ekipoa lan egiten duena, euskalduna, helburu irekiak eta demokratikoak dituen... Eta horiekin batera baldintza funtsezko bat: euskal Herritik sortua eta antolatua, inongo botere arrotz baten inposizio-rik gabekoa". Ikusten duzue sareen artean hori gauzatzeko modurik?**

**Txapas:** Badago gutxiengo bat bere lubakian gelditu nahi duena, bai ikas-toletan eta baita eskola publikoetan ere. Eskola publikoaz, bakarra esaten dutenean, adibidez, *eskola publiko bakarra*, kontuz horrekin: gaur, bakarra zer da? Gaur esan beharko genuke askotarikoak; *euskal eskola publiko askotarikoak* askoz hobeto islatzen du errealitatea. *Bakarra* diogunean, arriskuan jartzen ari gara errealitatearen aniztasuna. Sare guztietan jende asko dago bidea elkarrekin egin nahi duena, jende hori ahaldu egin behar da, jende askok ikusten du ordua dela beste fase batera pasatzeko. Jende horren guztiaren hitza mahai gainean jartzen dugunean eta kontuan izaten hasten garenean, hasiko dira ekimen berriak aurrera ateratzen.

**F. R.:** Hor dago Sortzen Ikasbatuaz, adibidez, publikatutako ikastola batzuk, ikastolen izaera mantendu nahi dutenak. Hori gontz gisara interesgarria izan liteke, ikastoletara eta eskola publikora iristeko. Horrek eman dezakeela uste dut.

**Zer hartuko zenukete sare bakoitze-tik? Publikotasunetik eta pribatutasunetik, bi eredu horietan lantzen joan diren elementu positibo interes-**



**garrienak biltzea proposatzen duzue, larrienak saihestuz.**

**F. R.:** Ikastoletatik proiektua bera hartuko nuke, hezkuntza-egitasmoa, eta, horrekin batera, klaustroaren finkotasuna. Eskola publikoan ez da hori gertatzen: funtzionarioen sistemaren arabera, jendea alde batetik bestera mugitzen ari da, eta ezin da finkatu egitasmoari loturiko klaustro egonkor bat. Eskola publikoak klaustro egonkor bat beharko luke egitasmoa lantzeko: funtsezkoa da hori hezkuntza-proiektu baterako. Proiektu horiek askotarikoak izan behar dute. Denengana iristeko baldintza hartuko nuke eskola publikotik, eta eskola konpentsatzailearen ideia ere bai: izan dadila denek bizi ahal izateko aukera emango duen eskola, eta “denek” esaten dudanean disfuntzio guztiei buruz ari naiz hizketan, esate baterako, izaerarekin lotutako disfuntzioak dituztenak, garapen-arazoak dituztenak, motrizitate-arazoak dituztenak... bizitza halakoa delako. Eta eskola horretan egon behar dute kanpotik etortzen diren familieta-haurrak. Eskola publikoak balio konpentsatzailea eduki behar du: lortu behar du jende guztiari aukera berdinak ematea, nondik datorren ikusi gabe; eta hori da orain gertatzen ez dena.

Zer gertatu da, adibidez, Arabako Errioxan? Eskola publiko estatal horretatik ikaragarritzako kritikak etorri dira ikastolen kontra, esanez ikastolek ez dutela etorkinik, etorkin guztiak eurengana joaten direla. Eta ikastolek atera behar izan dute esatera ordezkartzak bidaltzen dituela ikasle horiek guztiak A eta B eredueta: “gu prest gaude, baina etor daitezela D ereduan integratzeko”.

Sare publikotik honakoa hartuko nuke: errefortzuak. Irakasleez gain, beste motatako errefortzuak behar dira sare guztietan. Izan Hezkuntza Premia Bereziak dauzkatenentzako laguntzaileak, psikologoak izan; eta Berritzeguneek ere funtziona dezatela sare guztietarako.

**Familia etorri berrien haurrak eskolaratzea da debate honetan mahai gainean jartzen den puntu zail bat. Zuek zer proposatzen duzue ikastetxe publiko batzuetan etorkin**

**gehienak pilatu ez daitezten? Eta ez dadin arrakalarik egon horien eta etorkin gutxi dituzten ikastola jakin batzuen artean?**

**F. R.:** Eskola konpentsatzailea, integratzailea eta askotarikoa izateko, jende horrek ikastoletara ere joan behar du, eta hitzarmena baldin badago, hezkuntza-sistema batean hezkuntza-eredu guztietako aukerak baldin badaude, lortu egin behar da Down-en sindromea daukaten haurrak, kanpotik datozenak edo dena delakoak gertuen dauden eskoletan matrikulatzea, ezin dira kontzentratu ikastetxe batean edo bestean.

**Txapas:** Ia mundu guztian dago arazo hau. Mundu guztia mugitzen ari da. Gobernuak plangintza bat egin beharko luke, eta hor dauden zentroek onartu egin beharko lukete plangintza, lan horrek gizarte kohesionatu bat egitea izan beharko lukeelako helburu. Ezin da gizartea kohesionatu umeak etorri eta euskalduntzen ez badira; hasteko, ume hori baldintzatzen ari zara, ez du lan on bat aurkituko; ingurukoaren erreferentzia faltako zaio... Arazo horren konponbidea izango litzateke ume horiek zentro guzti-guztietan jartzea, salbuespenik gabe. Eta hor egongo dira erreparatu batzuk, noski, baina hori da bidea.

**Hainbat publikotasun-eredu daude European. Ezagutzen dituzue Finlandiako, Estoniako edota Herbehereetako ereduak. Zer ekarriko zenukete Euskal Herrira? Zer ekarriko zenukete gaur-gaurkoz?**

**F. R.:** Estoniatik eta Finlandiatik tokian tokiko administrazioekin duten lotura hartuko nuke, hori funtsezkoa da. Hemen udaletxeetan badago hezkuntza-batzordea, baina eskoletako jolastokiak noiz irekiko diren, festak nola antolatuko diren eta antzeko protokoloak aztertze biltzen dira. Hori zabaldu egin behar da, hainbat eragileren artean gauzak lotzeko.

**Txapas:** Beste herrialdeetatik ekarriko nuke publiko/pribatu gatazka erlatibizatzea. European, gatazka hori beste parametro batzuetan bizi dute hezkuntzan. Herriaren onurarako diren hezkuntza motak bultzatzen dira, haurri begiratzen diotenak.

**“Ikusten dugu eta nabarmendu beharrekoa iruditzen zaigu eskola publikoan egindako ahalegin handia euskararen alde, parte-hartzearen alde, sektore guztiengana iristearen alde”**

**Ikuspegi eraikitzailetik idatzi duzue liburua, baina sumatu liteke hutsune bat: eskola publikoen goitik beherako egitura kritikatzeko duzue. Espainiako sistemaren mendeko direla diozue, eta, aldiz, ikastolen behetik gorantz-kotasuna goraipatzen duzue. Eskola publikoetan, irakasle eta guraso asko ari dira lanean ikuspegi herritarrarekin eta euskaldunarekin, haurra erdigunean jartzen duen eredu lantzen egunero, behetik gora. Eta hori ez da asko agertzen zuen liburuan.**

**Txapas:** Bai, aitortu behar dugu, eta agian ez dugu nahikoa aitortu liburuan, gaurko eskola publikoan zer-nolako ahalegina egiten ari diren haur guztiak euskalduntzeko eta gizartearen aniztasuna onartzeko, eredugarria da. Hori nabarmendu egin behar da, eta etorkizunerako planteatzen dugun eskola berri horretako zutabe bat izan behar du puntu horrek.

**F. R.:** Ikusten dugu eta nabarmendu beharrekoa iruditzen zaigu eskola publikoan egindako ahalegin handia euskararen alde, parte-hartzearen alde, sektore guztiengana iristearen alde. Agian, liburuan ez da nahikoa nabarmendu, eta hori gure akatsa da, eta zuzendu beharra dago; izan ere, balioesten dugu, eta asko gainera.

# EKARPENAK 2

IRUÑEKO UDAL HAUR ESKOLAK

## Ongi oinarritutako arrazoiak daude Iruñeko euskarazko haur eskolak babesteko eta bultzatzeko

Iruñeko alkate Enrique Maiak hiriko udal haur eskoletan euskarazko ereduak murrizteko hartutako erabakiaren ondoren, hainbat eta hainbat protesta egin dituzte hezitzaileek zein familiek. Donibaneko haur eskolako hezitzaileek idatzitako hitzak dira ondorengo lerroetakoak, orain arte egindako lanaren balioa azaltzeko, Iruñeko haur eskolen harribitxia baloratzeko eta euskararekiko konpromisoari eusteko argudioak gogoratzeko.



Iruñean egindako elkarretaratzeko bat, haur eskola euskaldunak ez murriztu eskatzeko.

### Gure altxorra

Nafarrok berezi egiten gaituen altxor bat daukagu, belaunaldiz belaunaldi bizirik iraun duen harribitxia.

Gure berezitasuna ahuldu nahian, harribitxia desagerrarazten saiatu dira, mendez mende hura gaitzetsiz, demoniatuz, zikinduz, zokoratuz... Harribitxiaren dirdira, ordea, ezin izan dute inoiz erabat itzali.

Gure altxorra babestearren, ondo-koak alde batera uztea leporatu izan digute anitzetan, eta, horren ondorioz, alboratu egin gaituzte nafarrok gure etxean arrotz sentiaraziz..., altxordunak estigmatizatuz, zapalduz, lotsatuz..., kanpotik ekarritako harribitxiak gorai patuz, gurea gaitzesteko.

Guk, ordea, jakin badakigu gure harribitxiak zenbat eta gehiago parte-

katu, orduan eta dirdira indartsuagoa izanen duela. Horregatik, gure etxera datorren orori gure altxor kuttuna oparitu dio, etxean bezala senti dadin, gure altxorra ez baita bazter-tzailea, integratzailea baizik. Jakin badakigulako kanpotik datorren zapal dutakoari egin diezaiokegun oparirik hoberena etxeko ateak zabaltzea dela eta berezi egiten gaituen altxorra harekin partekatzea.

Horixe egin dugu azken urte hauetan Iruñeko haur eskoletan: gure altxorra maitasunez partekatu. Gure harribitxia ezagutzera eman. Aurreiritziak apurtuz, etxeko ateak munduari irekiz eta desberdinak garenon arteko harreman sendoak eraikiz. Eta gure harribitxiak dirdira handiagoa egiten du gaur, bizirik dirau!

### Non dago euskararekiko konpromisoa?

Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna Europako Kontseiluko estatu kideek onartu zuten Estrasburgon, 1992ko azaroaren 5ean, Europako hizkuntza guztiak babestu eta sustatzeko xedez. Espainiak 1992an sinatu zuen akordioa (lehenetariko bat izan zen), eta 2001ean berretsi zuen. Ildo horretan, Rozsa Hoffmann hungariarrak bere txostenean dioenez, “hizkuntza-aniztasuna Europako kultur ondarearen zati da”, eta, hortaz, “hizkuntzok babestu eta sustatzeak izan beharko luke giza duintasuna eta funtsezko eskubideak errespetatzen dituzten politiken osagai nagusietako bat”.

Baina ez dirudi egungo Iruñeko Udalak beteko duenik euskararekiko duen konpromisoa hiriko haur eskoletan. Bere espainoltasunaz eta europeismoaz harro agertzen den alderdi politiko bat izaki, ez dirudi Europako konpromisoak entzuteko batera prest dagoenik, Espainiako Gobernuak konpromisoak berretsi izanagatik ere, Aznar buru zelarik.

Euskara herritarren ondarea da, ez alderdi politikoena; eta herritar garen

aldetik, espero dugu gure agintariak – politika alde batera utzita– gai izanen direla Nafarroako Foru Komunitate osoaren hizkuntza babesteko eta zaintzeko.

Agintariei gure arbasoena izan zen eta gure ondorengoena izanen den hizkuntza babesteko eskatu ahal izateko, lehenik, gai izan behar dugu ulertzeko euskara komunikatzeko tresna bat eta guztion ondarea dela, eta ez alderdi politikoen arma. Hannah Arendt alemaniarrek hone-laxe definitzen du eskola: “Eremu publiko bat, non ikaskuntza-baldintza jakinak gertatzen diren eta pertsonak biltzen diren hitz egiteko, eztabai-datzeko, istorioak partekatzeko eta elkarrekin borrokatzeko, herritar aktiboen aukerak indartzen dituzten (eta ez ahultzen) gizarte-harremanen barruan, betiere”.

Iruñeko Udalaren eskola batzuek geure egiten dugu eskola bizitzeko modu hori, euskaraz.

Maturanak dioenez, edozein proiektu abiatu aitzin, funtsezko galdera bat egin beharko genioke geure buruari; hain zuzen ere, honako hau: “Zer kontserbatu nahi dugu?”

Galdera handia, bizi dugun garairako.

**Euskara herritarren ondarea da, ez alderdi politikoena; eta herritar garen aldetik, espero dugu gure agintariak –politika alde batera utzita– gai izanen direla Nafarroako Foru Komunitate osoaren hizkuntza babesteko eta zaintzeko.**



“Horixe egin dugu azken urte hauetan Iruñeko haur-eskoletan: gure altxorra maitasunez partekatu. Gure harribitia ezagutzera eman. Aurreritziak apurtu, etxeko atea munduari irekiz eta desberdinak garenon arteko harreman sendoak eraikiz”.

# GALDEIDAZU

## ZERGATIK DA GARRANTZITSUA ESKOLETAN SOFTWARE LIBREA ERABILTZEA, ETA EZ GOOGLE ETA MICROSOFT-EN PRODUKTUAK?

Zuen galderari beste batzuk gehitu dakizkioke: axola al digu pribatutasunak?, axola al digu euskarak?, axola al digu hezkuntzan enpresa erraldoiak sartzeak?

Galdera horiek eta beste batzuek eraginda sortu zen duela hiru bat urte Hezkuntzan ere Librezaile (HeL) taldea. Egun, 300 inguru IKT zale, irakasle eta gurasok osatzen dugu talde hori.

Hezkuntzan urte batzuk daramatzagunontzat, ez da berria afera hau. Aspalditik ari gara Microsoft-en produktuen ordez software librean oinarritutakoak erabiltzea bultzatzen: dela Linux banaketak, dela bulegotika-paketeak. Eta esan behar dugu toki askotan lortu dugula. Adibidez, gaur egun ez dira gutxi Luberri sistema eragilea edota LibreOffice bulegotika-paketea erabiltzen duten ikastetxeak.

### Zergatik sortu du halako oihartzuna gai horrek orain?

Bada, azken urte hauetan enpresa teknologiko erraldoi horiek Euskal Herriko hezkuntzan izaten ari diren sarrera areagotu egin da, batez ere, Google-n hezkuntzara zuzendutako produktuak agertzearen ondorioz. EAEn eta Nafarroaren kasuan administrazioa bera ari da produktu



horien erabilera bultzatzen; gauza bera esan dezakegu Ikastolen Elkarteari edo beste hezkuntza-eremu batzuei buruz ere.

Kezka nahiko hedatua dagoela esan dezakegu, eta, horrelakoetan, nonbaiten bat egiten dute kezka horiek; gure kasuan, Librezaile taldearen Telegram kanalean. Iritziak, haserreak, adibideak... botatzen hasi ginen, eta horrek guztiak bere entitatea izan behar zue-

### Alain URIZAR, Miren BERASATEGI, Imanol MANTEROLA eta Izaro BASURKO

#### Hezkuntzan ere Librezaile taldeko kideak



la erabaki genuen; hortik sortu zen Hezkuntza ere Librezaile taldea.

Aipatutako iritziek, haserre, adibideek eta izan zitezkeen hautabideek Telegram kanal berri horretan jarraitu zuten. Egungo egoera eta etorkizun hurbilean irudikatzen genuena aldatzen hasteko, zerbait egin behar genuen. Horrela, gure kezka adierazten zuen eta irtenbide bat proposatzen zuen idatzi bat egin genuen elkarlanean (<https://hezkuntza.librezale.eus>).

Egungo Euskal Herriko hezkuntza Google-k eta Microsoft-ek daukaten preziazaren argazki orokor batekin hasten da idatzia:

Jakin dugunez, Eusko Jaurlaritzak Google-n eta Microsoft-en esku utziko ditu EAEko milaka ikasleren identitate digitalak. Hezkuntzako beste esparruetan ere egoera antzekoa da, Iparraldean, Nafarroan edo Ikastolen Elkartearen besteak beste. Bestalde, Chromebook gailuen hedapena ikastetxeetan gero eta zabalagoa da, askotan erakundeek berek bultzatuta.

Hona hemen haien tresnak erabiltzeak gure ustez dakartzan ondorioak:

1. Gure ikasleen datuak enpresa pribatuen esku uzteak ezinezko egiten du ikaslearen pribatasuna bermatzea. Gure ikasleak entitate publikoek bultzatuta produktu bilerak inplikazio larriak ditu.
2. Bost urteko bizitza bakarrik bermatzen duten Chromebook gailuetan inbertsioa egitea arduragabekeria da, zaharkitze programatua berrerabileraren kontra baitoa.
3. Gure ikasleek erabiliko dituzten gailuetan euskararen presentzia enpresa pribatuen interes eta gidalerroen menpe uztea gure hizkuntzaren kontrako erabakia da. Are gehiago Chromebook gailuetan; gaur egun, ez daude euskaraz hainbat atal.
4. Ikasleak behin eta berriro tresna berdinen erabilerara mugatzea hezkuntza digitala murriztea da. Gaitasun digitala, Europako eta Euskal Herriko hezkuntza legeen arabera, ikasleek lortu beharreko oinarritzko gaitasun bat da, eta tresna horietara mugatzeak ez du

inola ere hori bermatzen.

5. Hezkuntza-komunitatean tresna horiekiko dependentzia sortzeko arrisku larria dago. Enpresa pribatuen produktuen erabiltzaile eta bezero izan daitezkeenak sortzen ari gara, erakundeek bultzatuta.

Bukatzeko bi irtenbide planteatzen dira:

- Arrazoi hauek guztiak kontuan hartuta, uste dugu unea iritsi dela eztabaida-prozesu bat bultzatzeko. Software librean bezala, jakintza kolektiboa eta estandar libreak bultzatzen dituzten hautabideak egon badaude, eta digitalizazio zentzudun, jasangarri eta arduratsu baten alde egiteko unea da.
- Administrazioari dei egin nahi diogu, ahaldunduko gaituen azpiegitura libre eta jasangarri bat ezartzeko orduan digitalizazio-prozesua gida dezan eta laguntza tekniko eman dezan; eta ez dezan soluzio komertzial interesatu baten esku utzi gure ikaslearen hezkuntza digitala.

Idatzia eragile batzuei banatu zitzaizkien, hala nola sindikatuari, alderdiei, hezkuntza-erakundeari eta beste lako eragilei. Orain, atxikimendua jasotzeko fasean gaude. Gure asmoa jasotako publiko egitea eta aurre-erapauso berriak ematea da, betiere, Google, Microsoft eta enparauek hezkuntzan duten presentzia murrizteko asmoz.

### Horren aurrean, ba al da hautabiderik? Zer egiten ari gara?

HeL taldekook ez gara geldituta egoten garen horietakoak, eta hasiak gara Microsoft eta Google-renak ez diren hainbat ordezkotako programa eta software aztertzen, betiere software libreari lehentasuna emanez. Aurretik aipatu dugunez, sistema eragilearen artean, badago jendea Luberri sistemarekin ari dena, Windows-ekin aritu beharrean. Beste askok Google Drive utzi egin dute, eta Nextcloud hodei librean hasi dira lanean. Era berean, Microsoft Office bulegotika software-suitearen lizentziak erabili beharrean LibreOffice erabiltzen hasi dira erabiltzaile asko, zeina euskaraz



eskuragarri dagoen Librezaile elkar-teari esker. Testuak, kalkulu-orriak, aurkezpenak eta grafikoak prozesatzeko, datu-baseak kudeatzeko eta antzeko atazetarako software librea da LibreOffice eta, Collabora-rekin batera, online lankidetzaren ahalbidetzen du.

Nabigatzaileei dagokionez, Mozillaren Firefox-ek eta bilatzaileei dagokionez DuckDuckGo-k edo SearX-ek pribatutasun handiagoa eskaintzen dute, Chrome-k eta Google-k baino. Gmail posta elektronikoren ordean, besteak beste Zimbra probatzen hasita gaudela ere esan behar dugu. Groupware aukerak dituen programa informatiko honek ere lankidetzaren ahalbidetzen du.

Hain azkar hedatu den Google Classroom aukeraren aurrean, berriz, Moodle e-learning plataforma nabarmendu behar da. Ikuspuntu pedagogiko batean oinarrituta dago, deszentralizatua da, eta software librearekin eraikitua dago. Gainera, munduan zehar gehien erabiltzen den irakaskuntza-plataforma da, eta duela gutxi arte zabalduna inguru hurbilean.

Gure aldetik Telegram taldea sortu eta erabiltzen jarraitzen dugun arren, hasi gara Matrix erabiltzeko urratsak ematen ere; komunikazio zuzeneko protokoloa da Matrix, software librean oinarritua, gardenagoa eta deszentralizatua.

Oso argi dugu ikasleek hautabide horiek erabili ditzaten nahi badugu behar-beharrezkoa dela prestakuntza. Prestakuntza horrek gure beharretara

Microsoft, Google eta horrelako enpresak gure eskoletan sartzearen aurka gaude pribatutasuna bermatzeko, zaharkitze-programatua saihesteko, euskararen erabilera bermatzeko, ikasle kritikoak sortzeko eta mendekotasuna ez sortzeko. Madrilgo Erkidegoan EducaMadrid izeneko plataforma eskuragarri dago eta Katalunian Xnet.

egokitu behar du, ez baita erraza enpresa teknologiko handi hauen aurka egitea. Horregatik, garrantzi handia dute antolatzen diren ikastaroei; badakigu EAEko Berritzeguneetan zenbait ikastaro eskaini direla, eta baita UEUn ere. Gainera, entzun dugu UEUk ildo honi garrantzia eman nahi diola hurrengo urteei begira. Ea egia den eta eskaintza horiek eskaerez betetzen ditugun.

## Gai honen inguruko beste ekimenik ezagutzen al duzue?

Jakin dugu Madrilgo Erkidegoan EducaMadrid izeneko online plataforma eskuragarri dagoela (<https://www.educa2.madrid.org/educamadrid/>). Hango arduradunarekin hitz egin dugu, eta plataforma horren oinarriak argitu dizkigute teknika-riek: librea izan behar du, burujabea, pribatutasuna babestu behar du, publizitaterik ez du izan behar, elkarlanean balio behar du, eta irakasleen kontrolpean egon behar du. Ikasteko gune birtualak, edukiak sortzeko tresnak, lankidetzaz-inguruneak, hodei-biltegiak, posta elektronikoko segurua eta askoz gehiago eskaintzen ditu Madrilgo Erkidegoak plataforma horren bidez. Madrilgo esperientzia hori eredu izan daiteke guretzat, baina, HeL taldearen komunikatuan esaten dugunez, administrazioen gidaritzak beharko litzateke horretarako.

Katalunian ere esperientzia polita dute Xnet plataformarekin: oso kanpaina sendoa egin zuten hango eskoletan hezkuntzan GoogleSuite-k ezartzen dituen baldintzen aurka, "Ez sinatu GoogleSuite erabiltzeko baimena" lemapean. Dezenteko harrabotsa sortu zuen ekimenak, eta eztabaida piztu zuen jendaratean.

## Beraz, zergatik gaude Microsoft, Google eta horrelako enpresak gure eskoletan sartzearen aurka?

### 1. Pribatutasuna bermatzeko.

Nora doaz gure datuak? Enpresa horiek gure ikasleen (eta irakasleen) erabilera-datuak hartzen dituzte ordainetan, hori da haien negozioa. Haurren hastapenetako Interneten erabilera enpresa pribatu baten datu baseetan erregistratua gelditzen da, eta akatsak egiteko unea da berez. Egun, ez da zalantzan jartzen enpresa horiek pertsonen profilak egiten dituztela lortutako datuekin, eta, profil horien arabera, era bateko edo besteko "errealitate" digitalak aurkezten dizkietela, haien jokamoldeak, iritziak, kontsumo ohiturak eta abar moldatze aldera. Eta ez du balio ezkutatzeko ezer ez dugula esateak; publiko egiten al dugu gure alabaren osasun-txostena, adibidez?

### 2. Zaharkitze-programatua saihesteko.

Auto berria erosten al dugu bost urtean behin? Bost urte igarotakoan ordenagailuak zakarrontzira bota behar al ditugu orain? Chromebook gailuek, adibidez, ez dute eguneratzerik onartzen bost urte pasatu ondoren, eta, horren ondorioz, aplikazioek huts egiten dute. Gero eta euskal ikastetxe eta familia gehiago konturatzen dira, modu mingotsenean, merkea zirudien gailu hura erostea trikimailu hutsa zela, ezin baitute ordenagailuarekin lan egin. Familiek gastu handia egiten dute urtero, eta ezin diegu IKTen multinazionalen hezkuntzako gastua puzten utzi, are gutxiago gure gailuei etekin handiena ateratzen laguntzen diguten sistema libreak eskura ditugunean.

**3. Euskararen erabilera bermatzeko.** Argi dago multinazionalen euskara baztertu egiten dutela. Microsoft-ek software gutxi batzuk bakarrik euskaratzen ditu, baina Eusko Jaurlaritzak, gure diruz ordainduta, lan guztia egiten diolako! Bestalde, Chromebook gailuen atal garrantzitsu asko ere ez daude euskaraz, ezta Google Suite eta beste asko ere (Apple-k gailu eta zerbitzu bakar bat ere ez du euskaraz ematen). Ez du zentzurik euskal hezkuntzan erdaraz dabilen softwareak erabiltzen jarraitzeak; gure ikasleekiko inkongruentzia nabarmena da, euskara sustatu nahi bada behintzat. Erabil ditzagun funtzio berak euskaraz egiten dituzten tresna libreak!

**4. Ikasle kritikoak sortzeko.** Gaitasun digitala, Europako hezkuntza-legeen arabera, ikasleek lortu beharreko oinarriko gaitasuna da. Behin eta berriz multinazionalen produktuak irakatsiz, ikasleen autonomia mugatzen dugu, erabiltzaile kritiko izateko laguntza eskaini beharrean, eta kontsumitzaile fidel eta menpekoak sortzen ditugu. Medikuntzan sendagai generikoak erabiltzen diren modu berean, erabil ditzagun hezkuntzan software libreak, multinazionalen dependentzia murrizteko, bai erabilaren aldetik eta bai softwarea eskaintzen duten enpresen aldetik ere, hemengo software-sorkuntzan eta mantentze-lanean aritzen diren enpresen alde egiteko.

**5. Mendekotasuna ez sortzeko.** Doan eskaintzen zaizkigun zerbitzu erakargarri hauen bidez, biharko bezeroak lortzen dituzte enpresa horiek, leialtasuna sustatu nahi dute. Horrelako praktiketatik urrun egon beharko luke hezkuntzak.

Laburbilduz, digitalki kritikoak, libreak eta euskaldunak diren ikasleak hezi nahi baldin baditugu, eman diezaiegun lehentasuna ezaugarri horiek dituzten tresnei, eta ez helburu nagusi etekin ekonomikoa duten enpresen tresnei.

# ARGITALPENAK



## ABERE BA

Itziar Aranburu eta Jon Ander Garcia

## PAMIELA- KALANDRAKA

Liburu honek *palindromo ilustratu*en piztegia azpitulua darama eta aurrealdetik zein atzealdetik hasi daiteke. *Palindromo* animalia bakoitzak beste hitz bat ezkutatzen duelako atzeraka irakurrita; *ilustratua*, animalien itxuran oinarrituta dagoela abezea; eta *piztegia* hitzak eta piztiak elkartzen direlako.




## WONDER MUTIKO MIRAGARRIA

R. J. Palacio

## DENON ARTEAN

August izeneko mutikoa ezberdin egingen du haren aurpegiak, baina berak haur arrunt bat izan nahi du. 10 urterekin lehenengo aldiz joango da eskolara eta bizitzako irakaspenik handienak jasoko ditu: ezbeharrean hezte, zeure burua onartzea, egun grisetan irribarre egitea, eta lagunduko zaituen esku bat aurkitu duzula jakitea.



## IBAIAN BEHERA

Magnus Weightman

## TTARTALO

Untxi Txikik jostailuzko ahatea galdu. Anaiarekin batera, txalupara egingo du jauzi ibaian behera ahate-txoaren bila joateko. Mendi tontorrekin itsas zabalerainoko bidea egin beharko dute, eta hamaika abentura aurkituko dituzte bidean. Ibaian behera doan *ezetz aurkitu* liburua abenturazale txikientzat.




## SEXU HEZIKETARI BURUZKO GIDA HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO ESKOLA KOMUNITATEARENTZAT

Itxaso Torregrosa eta Eloi Tato

## LAB

Irakasleentzat, gurasoentzat eta ikasleekin esku-hartzea duen edonorentzat sexu heziketa lantzeko gakoak ematea da gida didaktiko honen helburua. Orain Lehen Hezkuntzara bideratutakoa argitaratu badute ere, aurrerantzean derrigorrezko ziklo guztietarako aterako dute.



## GOGOETA-BIDE IREKIAK

Agustín Arrieta

## EHU

*Fikzio, egia, balio eta hezkuntzari buruzko saiakera filosofiko bat* azpitulua darama liburuak. Hainbat gai modu irekian lantzeko tresna, kontzeptu edo pentsabide batzuk ematen ditu, eta baita filosofia egiteko eta ulertzeko modu bat iradoki ere. Gaien artean daude ezagutza, egia, egia-ostera, artea, fikzioa, umorea, natura, kultura, hezkuntza, erlijioa, politika...



## EUSKAL KANTAGINTZA BERRIA (1961-1985)

Pako Arísti

## EREIN


1985ean idatzi zuen Pako Arístik euskal kantagintza berriaren kronika liburua, eta orain edizio zuzendua argitaratu du Ereinek. Mixel Labegueriek lehen diskoa argitaratu zuenetik 25 urtera, euskal kantagintzak sozialki eragin handia zeukan garaiaren kronika da liburu honek jasotzen duena.

# PROPOSAMENA

## Telelana nola eta zerekin

### Doakoak eta libreak diren aukerak

Aste hauetan inoiz baino jende gehiagok jo behar izan du telelana egitera, halabeharrez COVID-19aren ondotik ezarritako konfinamendua dela-eta. Etxetik, ordenagailuarekin eta Interneteko baliabideak erabiliz lan egiten ere ikasi egin behar da, askotariko tresnak, baliabideak eta plataformak baitaude, beharrak eta bitartekoak adina. Beraz, hasteko, ezagutu egin behar dira, eta horrez gain, norberaren beharretara egokien moldatzen direnak aukeratu.



**B**ide horretan lagungarri izateko xedez, Librezele taldeak komunikazio eta elkarlanerako tresna libre batzuk aztertu eta gomendatu ditu: <https://librezale.eus/2020/03/15/komunikazio-eta-elkarlanerako-baliabideak/>.

Telelana edo teleikaskuntza tresna libreekin eta euskaraz egin nahi duenak eta pribatasuna errespetatua izatea nahi duenak honako aukera hauek ditu eskura:

#### Nagibatzailak

- **Firefox**

Mozilla fundazioaren nabigatzailea da. Euskaraz dago eta puntako ezaugarriak ditu: gehigarri andana, estandarren betetze maila altua eta estandar berriak adosten laguntzen duen komunitate zabala.

- **Tor Browser**

Pribatasuna asko zaintzen duen web-nabigatzailea da.

#### Ikaskuntza

- **Moodle**

Online moldeko ikastaroak sortzeko programa-multzoa da eta euskaraz dago. Hezkuntza konstruktibo soziala planteatzen du, eta bertan ikasleek ere hezkuntzako esperientzian ekarpen garrantzitsuak egin ditzaketela azpimarratzen da.

Hiru modulu-mota nagusi ditu: baliabideak (eduki estatikoak), jarduera-moduluak (interaktibitatea duten ikasmaterialak: foroak, txatak, wikiak, blogak, glosarioak, datu-baseak, zereginak, tailerrak...), eta blokeak (ikastaroaren orri nagusiaren eskuin aldean agertzen den gainerako



informazioa: egutegia, kalifikazio-liburua...).

Moodle-ren ezaugarriek hau erakusten dute: ikasleek foroan galdetu eta erantzun dezakete, glosarioan terminoak gehitu ditzakete, tailerretan elkarlanean aritu eta autoebalatu eta koebalatu dezakete edo wiki batean elkarrekin lan egin dezakete.

- **eXeLearning**

Hezkuntza baliabideak sortzeko editore libre eta erabilerraza da. Webgunetik erraz eta doan deskargatu daiteke eta sistema operatibo guztiekin erabili daiteke. Edukiak katalogatzeko eta formatu desberdinetan argitaratzeko aukera ematen du. Proposatzen dituen hezkuntza estandarrek Moodlekin eta beste IKS Ikaskuntza Kudeatzeko Sistema batzuekin erabil daitezke. HTML propioa dauka eta horrek lanak erraz inprimatzeko aukera ematen du. Liburu elektronikoa egiteko aukera ere ematen du. Horrez gain, menura joanda diseinu askotarikoak aukeratu daitezke eta norberak bere diseinu propioa egiteko parada ere ematen du.

- **H5P**

Baliabide honek eduki interaktibo askotarikoak sortzeko aukera ematen du, beharren arabera egokitu ahal izateko. Hezkuntza jardunerako 40tik gora tresna eskaintzen ditu: bideo interaktiboak, aurkezpenak, eskemak, irudi sekuentziak, aritmetikako ariketak eta azterketak, audio grabaketak, grafikoak, collage-ak, zutabeak, elkarriketarako txartelak, diktaketak, dokumentaziorako erremintak, testuak eta irudiak leku batetik bestera eramateko gailuak, irudien muntaketa, irudien sekuentziak, berehalako feedbacka duten entseguak, hutsuneak betetzeko testuak, hizki-zopak, hiztegi-txartelak, galde-erantzunak irudiekin, aukera askotariko galdera sortak, test moduko galdetegiak, memoria jokoak... Horietako bakoitza nola sortu deskribatzen da pausoz pauso.

### Konferentziak

Audio eta bideokonferentzietarako tresna ohikoenak hauek dira:

- **Jitsi**

Tresna generalista bat da, erabiltzeko erraza eta doako hainbat zerbitzu aurki daitezke nabigatzailearekin sartu eta erabiltzeko prest. Ez da konturik sortu behar, konferentzia bat sortzeko honi izen bat eman eta esteka partekatzea nahikoa da. Beraz, aurrez ia ezer prestatu gabe erabil daiteke. Euskaraz ez dago.

- **BigBlueBotton**

Euskaraz badago eta jitsik ez dituen zenbait funtzionalitate ditu, online irakaskuntzan bereziki interesgarri egiten dituztenak. Urruneko irakaskuntzara zuzendutako zerbitzua da, ikasteko eta irakasteko bilerak egiteko bideokonferentzia zerbitzua duenari. Hezkuntzan, batez ere Moodle euskarriari lotuta erabili ohi da. Arbela funtziona dauka eta beste kideekin partekatu daiteke. Moderatzaile, aurkezle eta ikusle rolak ditu. Elkarlanerako funtzio aberatsak ditu: pantaila partekatzea, txata, testu partekatua, inkesta eta abar.

Beste batzuk:

- **OpenMeeting**
- **Mumble**
- **Talk**

### Txatak


Aurretik aipatutako audio eta bideo konferentzia tresnek testu bidezko txatak ere bazituztela aipatu da. Honako hauek, ordea, mezularitzako tresnak soilik dira, bideo eta audiorik gabe. Lehendabiziko laurek pribatasunari garrantzia handia ematen diote eta kanpo auditoriak egin zaizkie.

- **Signal**

Oso erabilerraza da. Telefono zenbakia eskatzen du eta horren bidez aurkitu daitezke erabiltzailearen kontaktuak. Moderazio aukera mugatuak ditu taldeetan.

- **Briar**

Zerbitzaririk gabeko mezulari zifratua da. Ez du zerbitzaririk behar, Tor bidez funtzionatzen du lehentasita, eta internetik gabe ere funtziona dezake. Foroak eta blogak ere sor daitezke.



### Librezale taldea

<https://librezale.eus>

### Hezkuntzan ere Librezale

<https://hezkuntza.librezale.eus/>

### Komunikazio eta elkarlanerako tresna libreak

<https://librezale.eus/2020/03/15/komunikazio-eta-elkarlanerako-baliabideak/>

- **Delta Chat**

Txat mezulari itxura duen e-mail bezeroa da eta komunikazioa modu gardenean zifratzen du beste bezero bateragarriekin komunikatzean. E-mail kontua behar da, IMAP protokolo estandarrekin bateragarria dena. Gmail zerbitzuarekin erabiltzeko aparteko konfigurazioa eskatzen du.

- **Fox**

Mezularitza tresna honen berezitasuna pribatutasuna da.

Beste batzuk:

- **Matrix/Riot**
- **Rocket.Chat**
- **Mattermost**



# ATZEKO ATETIK



## JATORRI HISTORIKOETATIK ETORKIZUNENKO ESKOLARA

AMAIA NAUSIA HISTORIALARIA

**G**aur egunean ezagutzen dugun eskola ereduaz ez da berria, gure gizarteko beste erakundeek bezala, eskolak badu bere jatorri historikoa. Gaur ezagutzen dugun eskola ereduaz helburu jakin batzuetarako sortua izan zen Industrializazio garaian, eskulana beharrezkoa zenean eta Estatuaren eta Sistema Kapitalistaren hainbat balio gizarteratu nahi zirenean. Helburua argia zen, Estatu kapitalista hasiberriak uniformetasunaren eta obediencia baliok bereganatuko zituzten herritarrak eta langileak behar zituen.

Beti izan da horrela; mendeetan zehar sistemarentzat elementu doktrinatzaila eta baliagarria izan da eskola. Baita genero-aldea handitzeari dagokionez ere. Badakigu Historian emakumeen alfabetatzea gizonezkoena baino askoz berantiarra izan dela. Mendeetan zehar, milaka urtetan ere, erabat baztertu zen emakumeen hezkuntza. Erdi Aroan, esate baterako, eliteko emakumeek bakarrik zuten hezkuntza sarbidea, nagusiki hezkuntza erlijiosoari dagokiona, baldin eta komentu batean sartzen baziren edo anaia batekin tutorea partekatzen bazuten, nobleziako kideen kasuan adibidez. Ondoren, Aro Modernoan, hiri-eskolak orokortu zirenean, batez ere mutilak lanbideetan aritzeko heztera bideratuak, neskei irakurtzen erakusten zitzaizkien eta gomendatzen zen idazten mutilei bakarrik irakastea. Azken finean, eta garaiko

pentsaeraren arabera, emakume izateko lanbidea gauzatzeko (seme-alabak haztea, etxea eta animaliak zaintzea, eta, gehienez ere, familia-kontuak eramatea) ez zen ezagutza handirik behar. Klaseak ere hezkuntza maila erabakitzen zuen noski; klase altuko mutilek latina, grekoa eta goi mailako ikasketak jasotzen zituzten bitartean, nekazal mundukoek irakurtzen, zenbatzen eta sinatzen ikasiko zuten besterik gabe, edo lanbideetako gaitasunak, hiriko mutilen kasuan.

Beraz, mendeetan zehar eskolak bi funtzio izan dituela esan genezake: batetik, klase eta generoen arteko arrakala handitzea, eta, Industrializazioaren ondoren, Estatuarentzat baliagarriak ziren herritar sumisoak eta produktiboak sortzea.

Galdera beraz litzateke aurrerapausorik eman dugun. Genero arrakala gainditzeko balio al du gaur eguneko eskolak? Klaseen artekoa gainditzeko? Herritar sumisoak sortzen dituen eredu mantentzen du, edo erabaki propioak eta ikuspegi kritikoa eta sortzailea bultzatzen du gure hezkuntza sistemak? Jakina, ez daukat galdera hauentzako erantzun finkorik. Uste dut, aitzitik, kasu askotan tarteko bide batean gaudela, eta hezkuntza-sistemako sektore garrantzitsu bat (gehiengoa dela pentsatu nahiko nuke) gai horiek gainditzeko saiatzen den bitartean, oraindik ere erresistentzia handiak sortzen dituen beste sektore bat dagoela.

Horren adibiderik argiena SKOLAE proiektua litzateke, gure haurrak berdintasunean eta errespetuan heztearen alde indar handiz egiten zion ereduari sektore kontserbadoreetako eragileak kontra atera zitzaizkion berehala. Bestalde, generoetatik bereizten dituzten ikastetxe pribatuak diru publikoarekin laguntzen jarraitzen den bitartean, kalitatezko eskola publikoa da, nire ustez, gure gizartean klaseen arteko aldea murrizteko bermerik handiena. Horregatik, beste behin ere, eskola publikoaren kontra sektore pribilegiatuek murrizketen bidez egiten dituzte erasoak.

Baina bada beste galdera bat argitzeke: haur autonomo, sortzaile eta kritikoa hezten ditugu? Edo industrializazioaren eredu jarraitzen dugu, non obeditu eta produzitzen duten izaki automatik baino ez ditugun nahi? Uste dut hemen eskolak oraindik konpondu gabeko erronka handia duela; Haur Hezkuntzaren salbuespenarekin, etxeko lanei, sormen gutxiko espazioei eta liburu akademiko tradizionalen lotutako eskola eredu dugu.

Ama, historialari eta feminista naizen heinean, uste dut eskola publikoa dela gure itxaropena; aukera-berdintasunerantzko aldaketa gidatuko duena, espazio sortzaile ahalbidetuko dituen, gizabanako kritikoa sortuko dituen, hain zuzen ere, gaixorik dugun sistema honekin apurtzen ausartuko diren herritarrak heziko dituen.

# IRRIEN LAGUNAK

Egin IRRIAREN HARPIDETZA...  
eta jaso DVDA edo CDA opari!



- ✓ Haurren irakurzaletasuna sustatu.
- ✓ Haurrak balioetan hezi.
- ✓ Babestu Irrien Lagunak egitasmoa!
- ✓ Hilabetekaria, urtean 10 zenbaki, etxean.
- ✓ 44 orrialde, koloretan, komiki eta denborapasekin!
- ✓ Jaso bazkide txartela.

## NON EGIN HARPIDETZA?

1. Elkar dendetan
2. Katxiporretaren Ikuskizunetan
3. 902820806ra deituz
4. harpidetza@irrienlagunak.eus
5. [www.irrienlagunak.eus/harpidetza](http://www.irrienlagunak.eus/harpidetza) orrian



URTEAN  
49 euro!



Jaso urtean lau zenbaki,  
20 €-ren truke

# Hazi Hezi

haziera eta heziketa  
aldizkaria



**Hazi Hezi** eta **hik hasi**  
familia eta eskola  
heziketari garrantzia ematen diogunon komunitatea

Harpidetzak:

hikhasi@hikhasi.eus • 943 37 14 08 • [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)